ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2007ko uztailaren 2a > Astelehena > III. urtea > 152. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Jendeak fisikoarekin soilik lotzen du gizen egotea, ez osasunarekin"

**M. Jesus Zapirain**
Gipuzkoako Erizainen Elkargoa > 06

**HUHEZI**
**Europako kazetaritza eskolen elkarteak HUHEZI onartu du** > 04

**GORRAK**
**Aransgi elkarteak pozik hartu du zeinu hizkuntza ofizializatzea** > 05

**BERGARA**
**Angiozarko bizilagunek ezetza eman diote AHTri galdeketan** > 11

**OÑATI**
**Hilaren 10ean zozkatuko dituzte 40 etxe 556 lagunen artean** > 12

**AZPIEGITURAK** > BEASAIN-DURANGO

# Idazten hasiak dira Bergara-Urretxu autobideko proiektua

**AURRERA** Zumarraga-Legazpi zatia eraikitzen eta Bergara-Urretxu zatiko proiektua idazten hasia da Bidegi

**2008AN** Bergara-Urretxu/Legazpi zatia 2008an hasi nahi du Aldundiak, eta 2010ean bukatzea aurreikusten du

**GARRANTZITSUA** Gipuzkoa ekialdea eta mendebaldea lotzeko, egitura klabea izango da Beasain-Durango > 04

**MENDIA** > ISTRIPUA

## M. Jesus Perezen hileta, gaur

Bergararraren aldeko hileta elizkizuna izango da San Pedro elizan > 05

## G2a

### Umeen danborradako parte-hartzea handia izan da Eskoriatzan

San Pedro jaien barruan, umeendako danborrada egin zuten herenegun Eskoriatzan. Beste behin ere, ume mordo batek parte hartu zuen. Gainera, gerrian danborra lotuta zeuden umeak ikusteko ere, herritar asko irten zen kalera. Axtrokiren gaineko karroza egin dute aurten. Orain eskalatzeko tokia bada ere, historian oso garrantzitsua izan da txoko hori. Bertan, orain 30 urte eta kasualitatez, urrezko bi ontzi aurkitu zituzten. Burdin Arokotzat jo dituzte. > 23



**JENDETSUA** Eskoriatza Herriko plazara irten zen umeen danborradako bukaera ekitaldia ikustera. JOSETXO ARANZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**KIROLA** > PILOTA

## Aitor Mendizabal nagusi Elgetako Pilota Txapelketan

Atzo jokatu ziren Elgetako Lau T'erdiko ETB Kantxa Txapelketako finalak.

Nagusien mailan, Aitor Mendizabal antzuolarra 21-19 nagusitu zen Aresoko Unai Onsaloren aurka. Kadete mailan, aldiz, Jon Jaunarena 22-12 gailendu zitzaion Etxarri-Aranazko Ansotegiri. > 19



Aitor Mendizabal. MIREIA BIKUÑA

**ESKORIATZA** > ERAKUSKETA

## Gerra, ikasleei irakatsita

Espainiako Gerra bukatuta, garai hartako umeei haren gainean zer irakasten zieten, eta gaur egungoei zer irakasten dieten, hori guztia hobeto ezagutzeko aukera ematen du Ibarraundi Museoan dagoen erakusketak. > 09

## Argazki lehiaketako lehenengo lanak

Abian dago III. Udako Argazkien ASTELEHENEKO GOIENKARIA Lehiaketa. Hala, gaurko zenbakian dago jasotako lehenengo argazkiak ikusteko aukera. Horiekin gertatu den bezala, aurrerantzean jasotzen ditugunak argitaratu egingo ditugu astelehenero. Animatu zaitez zeu ere parte hartzera, irakurle!


Orain duzu aukera, aldatu zure auto zaharra Opel ekologiko batengatik.
MERIVA
ZAFIRA
ASTRA
Opel sarean bakarrik emango dizugu Prever Plan Hirukoitza 1.440 euroko aurrezpen gehigarriarekin, Opel Astra, Zafira edo Meriva bat erosita.
prever plana x 3 = 1.440€-ko aurrezpen gehigarriarekin
ecoFLEX
OPEL
GMAC
Eskaintza baliagarria: 07/07/31. Prever Planaren barruan sartzen diren autoendako eta Opel Astra, Zafira edo Meriva erosten dutenendako. Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 emisioa (g/km): Astra Gama 4,8-9,3 / 130-223tik aurrera; Zafira Gama: 5,9- 9,5/140-228tik aurrera; Meriva Gama 5,0- 7,9/135-190tik aurrera.
Giauto
www.giauto.es
clientes@giauto.es
salmentak: 902 345 123
tailerra: 902 345 125
ELGOIBAR
Olaso 25
EIBAR
Otaola 27
ANOETA-TOLOSA
Benta-Aldea Ind. 3
ARRASATE
San Andres 10D
BERGARA
Olabarrena
OLABERRIA
Karobi Ind.

**LEGE SOZIOLOGIA** > LEGEA, GIZARTE OHITURAK ETA ETIKA, EZTABAIDAGAI OÑATIN

# Kalimotxoa, gizarte ohituretan oinarritutako legeen euskal adibidea

**JARDUNALDIAK**
Legearen ordez, etikan oinarritutako bizitza, hori eztabaidatu dute hainbat adituk Oñatin

**KALIMOTXOA**
Euskal Herriko ohitura batzuk adibidetzat hartu dituzte euren ideiak azaltzeko



**HIZLARIAK** Asier Perez eta Martin Hardie, kalimotxoa eta Australiako aborigenen lanak eskuetan dituztela. IRATI AGIRREAZALDEGI

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI
Australia, Canada, AEB, Erresuma Batua, Irlanda, Alemania eta Euskal Herriko adituak elkartu ziren eguen eta egubakoitzean Oñatiko Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundean, legearen alternatibei buruz berba egiteko. Legearen gainetik, hizkuntza-jabetza eta komunitate subiranoa ote dauden aztertu dituzte.

Lege-Soziologia Erakundeak aurkeztu eta Martin Hardie australiarrak antolatu ditu jardunaldiak. Hardiek azaldu digu jardunaldien helburua: "Aztertu dugu nola antolatu bizimodua eta komunitatea legea jainkotzat hartu gabe". Adituek azaldu dute nola antolatzen diren euskaldunak edo Australiako aborigenak, edo nola funtzionatzen duten Linuxek edo software libreak. "Guztiak lotzen dituen haria hauxe da: etikoki bizi izateko modu bat bilatzea, legea gure gainetik egon gabe".

Hardieren esanetan, "Euskal Herrian gauza asko dago gizarte antolaketan oinarritua, baina lege barik. Antzinako lege sistema da, aborigenen legeen eta Ingalaterrako *common law*-ren parekoa".

**LEGEA, HERRI JARDUERATIK**
Jabetza intelektuala babesteko legez gaindiko mekanismoak, edo subiranotasuna eta nazioaren gainetik dauden indarrek nola bereganatzen dituzten hizkuntza eta komunitateaz jardun dute. Horren barruan, hainbat gai landu dituzte, eta legeaz dihardugunean bitxia dirudien arren, herri kulturarekin lotura duen kalimotxoa ere izan da hizpide.

Funky Projects-eko Asier Perezek *Kalimotxoa eta euskal sormena kontrolatzeko gaur egungo beste bide batzuk* hitzaldia egin zuen. Funky Projects-ek liburu bat kaleratu zuen kalimotxoari buruz. "Liburuko atal batean berba egiten dugu leku publikoetan alkohola kontsumitzeaz, eta hor sartzen da legea; herri-jardueratik abiatuta sortu dira legeak".

Asier Perezek esan zuen, zenbait produktu edo zerbitzu konkretu kontsumitzen ditugunean, gure identitatea eraikitzen dugula kontsumo edo erabilera horretan oinarrituta. "Kalimotxoa sarritan lotu izan da aldarrikapen zehatzekin edo musika mota zehatz batzuen kontsumoarekin".

**KALIMOTXOAREN IZENA**
Perezek azaldu du kalimotxoa ez duela bultzatu upategi edo freskagarri marka batek; hala ere, kontsumoa oso herrikoia dela. "Kalimotxoa bera ez da erregistratutako marka bat, beraz, legeak ez du babesten izenaren erabilera; baina freskagarri marka batek erregistratuta du izena bera, eta eskubideak erabil ditzake horren gainean. Kalimotxo izena asmatu zuen Getxoko Portu Zaharreko Antzarrak lagun taldeak, berriz, ez du izenarekiko jabetza eskubiderik". Kalimotxoaren alderdi ekonomikoaz, hau esan zuen: "Babesak edo babesik ezak definitzen du negozioa, ez zentzurik zurrunenean, truke modura baizik".

**TALDEA, BANAKOAREN GAINETIK**
Kalimotxoaz ez ezik, euskal nortasunaren elementuez ere hitz egin zuen Perezek. "Euskal nortasuna hainbat elementuren gainean eraikia dago. Berez, milurtekoak direla uste arren, ez dute zertan horrela izan behar. Esaterako, hizkuntza, lurra edo txapela".

**"Leku publikoetan alkohola hartzen da: herri-jardueratik abiatuta sortu dira legeak"**

**"Euskal Herrian, gauza asko dago gizarte antolaketan oinarrituta, baina lege barik"**

Bestalde, gaineratu zuen, gure herrian, kolektiboa banakoari gailentzen zaiola, eta taldearen ideiak ideia propioen gainetik ipintzen ditugula. "Ohituta gaude, erabakiak gure kabuz hartu beharrean, talde erabakien azpian jartzera. Ondorioz, badira gure egin ditugun legeak aurrez hitz egin gabe: botea jartzea, denok batera mozkortzea eta denok edari bera edatea...; hortaz, ez da komeni besteekin batera ez edatea eta prezio ezberdin bateko edari bat hartzea, koadrilakoengandik ezberdinduko baikinateke. Kontrakoa uste arren, gutxi eztabaidatzen dugu, eta sormen faltak konplexuagoa eta sofistikatuagoa izan daitekeen euskal nortasun batekin pentsaraztea galarazten digu", esan zuen Perezek.

Kontzeptu horiek aztertu dituzte Oñatiko jardunaldietan, "ikusteko zer atera dezakegun aborigenen eta euskaldunen jardunetatik bizimodu berri bati ekiteko", dio Martin Hardiek. Hori azaltzeko, filosofo italiar baten esanak erabili ditu: "Mundu berri hori etortzear den humanitatea izango litzateke, legerik gabekoa, baina etikarekin".

## Australiako aborigenen egungo arte lanen erakusketa

Jardunaldiekin lotuta, Warlukurlangu elkarteko artisten margo lanak ipini dituzte ikusgai Oñatin. Lanak asteburuan egon dira Unibertsitatean, baina uztailaren 18, 19 eta 20an berriz ikusteko aukera egongo da. 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 19:00etara bitartean.

Australiako aborigenek egindako pintura akriliko koloretsuak dira, eta artelan berritzaile eta bildumagileen pieza gustuko ez ezik, herri aborigenen kultura eta jakituriaren gordailu ere badira.

Martin Hardiek azaldu digunez, "Australiako aborigenek hainbat epaiketa antolatu zituzten autore eskubideak aldarrikatzeko. Margolanetako asko txoriei buruzkoak dira; txoriak dira jendearen eta lurraren sortzaile, hortaz, margolanak lurraren idatziak dira. Aborigenek epaiketak izan dituztenean, euren lurrak berreskuratzeko, pinturak erabili izan dituzte, lurrak eurenak direla adierazteko. Legearen aurrean azaltzeko beste modu bat da".

**ARTISTEN BABESA**
Hardiek eman zigun beste azalpen bat izan da, Australia,n souvenirrak egiten hasi direla aborigenen artelanetan oinarrituta: "Aborigenen herrietan, dirua irabazteko hiru modu daude: gizarte segurantza, meatzetako *royalty*-ak eta pinturak. Australia iparraldean, batik bat, garrantzi handia dute margolanek diru sarrerak eskuratzeko. Hortaz, helburua zen artista aborigenak babestea, euren lanak ez zitezen erabili souvenir modura; artea, gainera, garrantzitsua delako kulturak eta hizkuntzak bizirik irauteko".

Legearen gainetik nortasuna gorde behar dela adierazi nahi izan dute, besteak beste, erakusketa honen bitartez.


Australiako aborigenen arte lanak. I.A.




**ITURRIA:** GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

GOIENKARIA

BEASAIN-DURANGO

**> HELBURUA**
AP-1, Bergaran, N-1ekin, Beasainen, lotuko ditu. Horregatik, EAEko ekialdea eta mendebaldea lotzeko funtsezko egitura da.

**> ZATIAK**
Zati bat zabalik dago: Zumarraga ekialdekoa. Ekainean hasi dituzte Zumarraga-Urretxu Legazpi zatiko lanak, eta 2009ean bukatuta egotea espero dute.

**> ZUMARRAGA-URRETXU-LEGAZPI ZATIA**
Zati horrek 47,1 milioiko aurrekontua du, eta 2,1 kilometro luze izango da. 30 hilabete diuzte lanak egiteko.

**> URRETXU-BERGARA ZATIA**
Eraikitzeko proiektua idazten hasia da Bidegi enpresa publikoa. 14 hilabeteko epea izango dute lanak egiteko, eta 120 milioi euroko aurrekontua.

**AZPIEGITURAK** > BEASAIN-DURANGO

# Idazten hasiak dira Bergara-Urretxu zatiko proiektua

Beasain-Durango autobidea aurrera doa, zati bat hasita bestea idazten dabiltza-eta

Bergara-Urretxu zatia laster egongo da idatzita, eta 2008an hasiko dira lanak

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Beasain-Durango autobidea bukatutako egoteko aurrerapausoak eman dituzte egunotan: izan ere, batetik, Zumarraga-Urretxu-Legazpi saihesbideko lanak ekain erdialdean hasi ziren, eta, bestetik, Bergara-Urretxu/Legazpi zatiaren gaineko datu zehatzak jakinarazi ditu Aldundiak.

Foru Aldundiaren Bidegi enpresa publikoaren esanetan, Bergara-Urretxu zatiaren proiektuko lanak idazten ari dira.

Bergara eta Urretxu arteko lanak datorren urtean hasi eta 2010ean bukatu nahi ditu Bidegik. Zatia 10 kilometro inguru luze izango da, eta 120 milioi euroko aurrekontua du. Tarte horrekin bukatuko da Eibar-Gasteiz autobidea eta N-1 errepidea zuzenean lotuko dituen ardatza.

**PROIEKTUAREN OINARRIAK**

Eraikuntza-proiektuak jasotzen ditu tarte horretako azpiegitura garrantzitsuenak zeintzuk izango diren. Hain zuzen ere, honakoak izango dira oinarriak: Bergara-Antzuola lotunea; Antzuolako lotune-erdia; Urretxu-Legazpi lotunea; Deskargako tunela (620 metro), Ipurrietekako zubibidea (250 metro), Antiguako zubibidea (250 metro), Lapatzako zubibidea (75 metro), Antzuolako zubibidea (220 metro), Igeribarrerrotako zubibidea (70 metro) eta San Migueleko tunela, bi norabidetan (890 metro luze).

**GUNE NAGUSIAK**

Oraingoz, Zumarraga-Urretxu/Legazpi saihesbideko lanak doaz aurrera. Errepide hori 2,1 kilometro luze izango da, eta gaur egun Beasain-Durango autobideak zabalik duen zati bakarra, Zumarraga ekialdekoa, Urretxu-Legazpiko lotune berriarekin bat egingo du.

Saihesbideak oso azalera bihurria zeharkatu behar du; horregatik, ibilbide erdia inguru tuneletik edo zubibidetik izango da: Argisaoko tunela (900 metro) eta Urola ibai gaineko zubibidea (266 metro) izango dira egitura garrantzitsuenak. Hain zuzen, orografia zail horrek eragin du lanok oso garestiak izatea, 47,1 milioi euroko aurrekontua dute-eta.

Eraikitzeko epea 30 hilabetekoa denez, 2009. urtean bukatuta egotea aurreikusten dute.

Bukatzen dutenean, autobide berriak AP-1, Bergaran, N-1ekin, Beasainen, lotuko ditu. Horregatik, EAEko Errepide Plan Orokorrean, Beasain-Bergara-Durango korridorea EAEko ekialdea eta mendebaldea lotzeko funtsezko egitura da.

**HEZKUNTZA** > HUHEZI

# HUHEZI, Europako eskolen elkarte baten

Europako kazetaritza fakultateen eta eskolen EJTA elkarteak kide moduan onartu du HUHEZI fakultatea

Hogei herrialdeko 50 bat eskola batzen ditu EJTAk, eta eurekin harremana estutu dezake HUHEZIk

**L.K.** > ESKORIATZA

EJTA elkarteak –European Journalism Training Association / Europako Kazetaritza Fakultate eta Eskolen Elkartea–, aho batez onartu du Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI fakultatea kide moduan, Parisen egindako urteroko bilkuran.

HUHEZIko bi ordezkari izan ziren Parisen EJTAren bilkuran: Txema Egaña HUHEZIko Nazioarteko Harremanen arduraduna eta Aitor Zuberogoitia Ikus-entzunezko Komunikazioa karrerako zuzendaria. Osoko bilkurak aho batez onartu zuen HUHEZI, Txema Egañak bilkurari egindako aurkezpena entzunda.

HUHEZIko kideek aprobetxatu dute bidaia harremanak egin, nazioarteko ikastaroak aurkeztu eta akordioak lantzeko Europako beste kazetaritza fakultateekin.

**EUROPAKO ERAKUNDEA**

European Journalism Training Association elkartea, EJTA, 1990ean sortu zen Bruselan, helburua zuela Europako kazetaritza fakultateak elkarlanean jarri eta horien europar dimentsioa zabaltzea. Elkarteak bere partaideen interesak defendatu, trukeak koordinatu eta eskolen arteko elkarlana eratzen du. Irabazi asmorik gabeko erakunde honek 50etik gora unibertsitate biltzen ditu, Europako 20 herrialdekoak.

Maiatzaren 9an, EJTAk Amelia Guardiola bidali zuen HUHEZIra, El Pais Kazetaritza Eskolako kidea eta EJTA erakundeko ordezkaria. Fakultatea bisitatu eta Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasketen gaineko informazioa jaso ondoren, Amelia Guardiolak txosten bat bidali zuen Holandara, gaur egun hantxe baitago EJTAren egoitza, HUHEZI elkarte europarrean onartzearen aldekoa.

**INFORMAZIO GUNEA**

Bestalde, ekainaren 25a ezkero, HUHEZIk informazio gune berria du eraikin nagusiko klaustroan, telefono gunearen parean. Informazio guneak hainbat zerbitzu eskainiko ditu: hala nola informazioa eman HUHEZIko ikasketen gainean; matrikula egin lehen aldiz doazen ikasleei; edo laguntza eskaini etorri berriei.

**GIZARTEA** > GORRAK

# Gorren familien elkartea, pozik zeinu hizkuntza ofizialdu delako

Zeinuen hizkuntza errekonozitzen duen lege proposamena onartu du Kongresuak

Bergarako Aransgi Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkarteak oso ondo hartu du neurria

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA
Pozik hartu dute Aransgi Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkarteko kideek eta arduradunek albistea: Espainiako Kongresuak eguenean onartu zuen Espainian dauden zeinuen hizkuntzak errekonozitzen eta erregulatzen dituen lege-proiektua; hitz baten, hizkuntza hori ofizialtzen duen araua. "Jendea pozik dago, bai", esan zuen Bergarako Aransgiko arduradun Iñaki Madinabeitiak.

Ez da gutxiagorako: izan ere, gorrek urte askoan borrokatu dute euren hizkuntza ofizial izan zedin. Hizkuntza errekonozitzeak, baina, ondorio gehiago ditu, Madinabeitiak dioskun moduan: "Baztertuta egon den hizkuntza bat errekonozitzeaz gain, komunitate bat ere errekonozitzen da".

Gaineratzen duenez, orain atea irekitzen da hizkuntza zabal dadin: "Askotan esaten da gor gehienek ez dutela erabiltzen zeinuen hizkuntza; baina ia denek badakite, eta ez dute erabiltzen, baliabiderik ez delako egon".

**INTERPRETEAK**

Aransgiko presidentea, Jose Montero, Madrilen egon zen, lege-proiektua jarraitzen. Berak azaldu digu izango duen eragina: "Hizkuntza ofiziala izango da hezkuntzan, osasunean... Horrek aukera emango die gorrei interpretea edukitzeko edo eskatzeko. Bestetik, laguntza teknikoak izango dira: hala, informazioa lortzeko aukera handiagoak izango dituzte. Arazoa da aurrekontu oso txikia duela legeak, eta Erkidego bakoitzak moldatu beharko duela, EAEn gertatuko den moduan".

Monterok gaineratzen duenez, "Aransgin lan egiteko moduan, ez da aldaketa handirik izango; aldaketa handiena norberaren eguneroko bizitzan izango da. Interpreteak ofizialak izango dira, eta, batez ere, neska-mutikoak hezteko, eta bizimodu normala izan dezaten, neurri gehiago izango dira".

**DEBAGOIENDARRAK**

Pertsona gorra non bizi den, hasieran behintzat, ez litzateke faktore bat izango behar dituen laguntzak eta neurriak jasotzeko. Hala, Debagoienean zein hiriburu baten bizi direnek berdin-berdin izan behar dute abantailak jasotzeko aukera, dio Monterok: "Eskubide unibertsala da: norbera bizi den lekuan bizi izanda, horrek ez luke traba izan behar bera integratzeko".

LEGE-PROIEKTUA

### Lege-proiektuak batzen dituen neurriak

Lege-proiektuak Espainian dauden zeinu hizkuntza guztiak errekonozitzen ditu –lurraldetik lurraldera, aldeak egon daitezke–, eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari agintzen dio hizkuntza horiek erabiltzen dituzten pertsonen bizi-baldintza eta kokapena zehazteko, horrela erreferentzia-zentroak eta baliabideak ipintzeko.

Horrez gain, Espainiako Zeinu Hizkuntza Normaltzeko Zentroa sortzen du. Erakunde kolegiatu batek zuzenduko du berau, eta hor, Administrazioko arduradunak eta gorren ordezkariak egongo dira.

Interpreteak egon beharko dira ere zerbitzu publiko jakin batzuetan, Estatuko hizkuntza guztietan.

**ENPRESA** > FAGOR

## "Merkatuko tximinia erauzgailu isilena" aurkeztu dute Fagor Etxetresna Elektrikoek

Deep modeloa aurkeztu zuen joan den astean Fagorrek, sukaldeko tximinia erauzgailu "isila eta eragingarria"


**DEEP MODELOA** Eragingarritasuna eta itxura nabarmentzen du Fagorrek. BM

**A.G.** > ARRASATE
Sukaldeko tximinia erauzgailu berria, deep modeloa, aurkeztu zuten Fagor Etxetresna Elektrikoek joan den astean; enpresaren esanetan, merkatuko isilena da, eds3 zarata-isilgailu sistemarekin, lehenengo mailan, ez baititu hartzen 35 dBA.

Gainera, kea erauzteko sistema berritzailea dute, barruko gune erdoilezineko perimetroaren inguruan; horregatik, erauzteko oso eragingarriak dira.

**DISEINU BERRITZAILEA**

Diseinuari dagokionez, abangoardiakoak dira: kanpoaldean, 90 zentimetro zabal dira, eta kontrol-panelak ditu. Beiraz eta altzairu erdoilezinez eginda daude.

Iñaki Goikoetxea enpresako marketing estrategiko zuzendariak dioenez, "tximinia hauek dira merkatuan ondoen eta isilen erauzten dutenak, diseinua eta funtzionalitatea ahaztu barik".

**GERTAERAK** > MENDI ISTRIPUA

## Bergarako mendizalearen aldeko hileta elizkizunak gaur egingo dituzte

Mendi istripua zapatu eguerdian gertatu zen, Huescan, Aisako Enbutua izeneko parajean; emakumea hilda aurkitu zuten

**L.K.** > BERGARA
Maria Jesus Perez Etxarri zapatuan hil zen 49 urteko mendizale bergarararren aldeko hileta elizkizunak gaur, astelehena, egingo dituzte, San Pedro parrokian, 19:00etan, gorpua han dagoela.

Bergararra mendian hil zen, Huescan, zapatu eguerdi partean, harri handi bat buru gainera erori zitzaionean.

Zapatu eguerdi inguruan eman zuen Aragoiko 112 SOS zerbitzuak istripuaren berri. Aisako Enbutua izeneko zen gertatu zitzaion, Llena de la Garganta eta Llena del Bozo tontorren artean. Jacako Guardia Zibila, UHEL 41 helikopteroa eta 061eko mediku bat hara joan ziren, eta medikuak egiaztatu zuen emakumea hilda zegoela, seguruenik, buruan jasotako kolpe handiarengatik. Helikopteroak Jacako Ospitalera eraman zuen gorpua.

**BI ZAURITU OÑATIN**

Bestalde, zapatuan, 10:50ean, Arantzazutik Oñatira jaitsieran, Altzoko bi txirrindulari, 33 eta 62 urtekoak, zauritu egin ziren Jeep Grand Cherokee batek eurekin talka egitean.

Aretz
Plater konbinatuak • Ogitartekoak • Hanburgesak
Pizzak • Paellak eramateko
Zeliakoentzako ogitartekoak
Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA


Gipuzkoako Erizainen Elkargoak (COEGI) antolatuta, *Egoneko bizitza eta elikadura-ohitura txarrak: mende honetako gaitza* izeneko jardunaldia egin dute Donostian. Gipuzkoako 50 erizain baino gehiagok hartu dute parte. Abiapuntua izan da gehiegizko pisua epidemia izatera heldu dela munduan, eta osasuneko profesionalek zer egin dezaketen aztertzea.

**Maria Jesus Zapirain** > Gipuzkoako Erizainen Elkargoko presidentea

# "Jendeak fisikoarekin lotzen du bakarrik gizentasuna, ez osasunarekin"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

**Gizentasuna gaixotasun kroniko bihurtzeko arriskuan ikusten du Gipuzkoako Erizainen Elkargoak. Orain 15 urtetik hona sortutako gaixotasuna ondorio larriak izaten hasi da, eta egoera saihestu beharra ikusten dute osasun profesionalek.**



Maria Jesus Zapirain, bere bulegoan. GOIENKARIA

**Gaitz moduan hartu behar dira dagoeneko egoneko bizitza eta elikadura-ohitura txarra?**

Bai. Bi portaera horiek epidemia izateraino iritsi dira mundu mailan. Arrisku handia dago gizentasuna gaixotasun kroniko bihurtzeko, eta hori saihesteko bideak topatu behar dira. Uste dut lehen arreta zerbitzura edo kontsultara doazen gaixo horiek diabetesa edo hipertentsioa dutenak bezala tratatu behar dituztela osasuneko profesionalek.

**Nola saihestu daiteke gizentasunaren gaixotasuna?**

Elikadura-ohitura onak hartuz eta ariketa fisikoa eginez. Pertsonen bizitza estiloa aldatu egin da: egungo bizimodua askoz sedentarioagoa da. Egun, langileen %70ek ez du ariketa fisikorik egiten, eta gazteen %53k ere egoneko bizitza egien du. Mentalizatu behar gara egunero egin behar dugula ariketa fisikoa, gutxi bada ere.

**Jendeak kirola neurri barik egiten duela ere badiote.**

Bai, baina askok egiten dute asteburuan. Orduan, neurriz kanpo ibiltzen dira kirola egiten, baina, aste barruan, ez dute pausorik egiten oinez, eta egin behar dena da egunero ordu erdi inguru egin ariketa fisikoa.

**Eta elikadura onari buruz?**

Orain, energia asko duten dietak jaten ditugu, lehen baino askoz koipe eta azukre gehiago sartzen dugu gorputzean, otordu azkarrak egiten ditugu eta opilgintzako produktu asko jaten ditugu. Eta hori guztia aldatu egin behar da: batez ere, umeek gizenak izateko arriskua prebenitu behar da. Ume asko daude ez dutenak behar bezala jaten, adibidez, gosaldu barik irteten direnak etxetik; askok diabetes arazoa ere badute. Umetan zaintzen ez badira, zaila da heldutan ohitura horiek aldatzea.

**Biztanleriaren ze portzentaje da gizena?**

Adibidez, Espainiako pertsona helduen %14,15 gizena da; EAEn, %14. Espainiako %38,5ek gehiegizko pisua du; EAEn %35,5ek. Datuak antzerakoak dira mundu guztian. Beste datu bat da gizentasuna gehiago sufritzen dutela emakumeek gizonek baino. Baina benetan kezkagarria dena da umeek sufritzen duten loditasuna: 2 eta 24 urte bitartekoen artean, %13,9 da gizena, eta gehiegizko pisua du %26,3k.

**Zein da irtenbidea?**

Gure kulturan, hitzordu asko egiten ditugu mahai baten edo taberna baten inguruan; jateko kultura da gurea. Horregatik, uste dut irtenbidea ez dagoela bakarrik pertsonengan. Adibidez: jakiak egiten dituen industriari exijitu beharko diogu produktu osasungarriak erabiltzea; publizitateari, jakien produktuak ondo iragartzea; eta pertsona osasuntsuen aldeko politika egitea, agintariei.

**Erretzeari uzteko moduko kanpainak eginez?**

Adibidez. Dirua gastatu, kanpainak egin eta jendea prestatu edo formatu beharko da gaitz honi aurrea hartzeko.

**Jendeak lotzen ditu elikadura-ohitura txarra eta egoneko bizitza osasunarekin? Edo bakarrik fisikoarekin?**

Uste dut ezetz. Jendeak ez du gaixotasunekin lotzen. Adibidez, zenbat jendek du diabetesa, kolesterola edo minbizia? Izan ere, minbizi batzuek zerikusia dute elikadura ohiturarekin. Ariketa fisikoa egitea edo elikadura ona izatea fisikoki ondo edo gaizki egotearekin lotzen du jendeak, ez osasunarekin.

**Nola aldatu dezake pentsaera hori jendeak?**

Uste dut, erakundeek behar bezalako politika ez badute egiten, ez dela aldatuko. Tabakoaren aurka egindako kanpainarekin, denek ez diote utzi erretzeari, baina uste dut lortu dela gutxiago erretzea edo arazoaz kontzientziatzea jendea, eta uste dut gai honekin ere hori egin behar dela. Ahalik eta lasterren, arazoa larria da eta.

**Zer egin dezakezue osasunaren profesionalok?**

Guk, adibidez, erizaintzako profesionalak sentsibilizatu behar ditugu gaitz honek osasunean izan ditzakeen eraginez, eta zer nolako garrantzia duen guk osasunaren alde egiteak.

**Nola egingo duzue hori?**

Hipertentsio edo kolesterol kasuetan, adibidez, protokoloa jarraitzen da, eta gomendatzen da zein ariketa egin edo zein ez. Gizentasunarekin, berdin jokatu dezakegu: diagnostikoarekin batera, osasuna hobetu dezakeen programa baten berri eman.

**Mediterraneoko dieta giza patrimonio izendatu gura dute.**

Oso ona da dieta hori, baina betetzen zaila ere bai. Jateko ohitura onak hartzea da kontua.

DATUAK

**"EAEn,biztanleriaren %14 gizena da, eta %35,5ek gehiegizko pisua dauka"**

IRTENBIDEA

**"Dirua gastatu, kanpainak egin eta jendea formatu beharko dute"**

OSASUN PROFESIONALAK

**"Diagnostikoarekin batera, osasuna hobetu dezakeen programaren berri eman behar dugu"**

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE

**> Udalerako arkitekto plaza betetzeko probak etzi, eguaztam dira**

Lehiaketa irekia egingo dute lanpostu hori betetzeko. Egun bakarra zehaztu dute hautaketa probak egiteko. Hala, interesa duenak eguaztenean azaldu behar du, uztailaren 4an, 10:00etan, udaletxean. Derrigorrezkoa da arkitekto titulua izatea eta 3. hizkuntza eskakizuna edo parekoa. Informazio gehiago: *www.arrasate-mondragon.org*.

ARETXABALETA

**> Ahotsaren mugimenduaren gaineko ikastaroa**

Lau orduko ikastaroa izango da, uztailaren 24an eta 26an –18:00etatik 20:00etara. Irakaslea Bettina Aragon Hillemann izango da eta prezioa 10 euro da. Izenematea Azkena tabernan edo *maieretxebarria@hotmail.com* helbidean egin behar da, uztailaren 18a baino lehen.

ARETXABALETA

**> Uztailean Larrino auzoan esango dituzte mezak**

Atzo, domeka, hasi eta hilabetea bukatu bitartean Larrino auzoan esango dituzte mezak, 12:30ean.

LEINTZ GATZAGA

**> Hiru ikastaro uztailean barrena KZgunean**

Gaur, hilak 2, izango da lehenengoa. Irratia sintonizatzen eta Internet bidez telebista nola ikusi irakatsiko dute, 11:00-12:00 ordutegian. Hilaren 16an, lanpostua topatzeko aukeren gainean jardungo dute, 11:00-13:00, eta hilaren 30ean, kontsumitzaileen eskubideen gainean, 10:00-12:00. Plaza libreak daude.

OÑATI

**> Txantxiku Ikastolaren jaialdiko zozketako zenbaki saritua**

Txantxiku ikastolak hilaren 22an egindako ikasturte bukaerako jaialdian mendiko materiala zozkatu zuten. Ikastolatik jakinarazi dutenez, zenbaki saritua hauxe da: 372.

BERGARA

**> Arcachongo aquaparkera irteera antolatu dute gazteendako**

Udalak eta Aldundiak antolatu dute irteera hori. Uztailaren 19an izango da. Izenematea hilaren 30ean bukatuko da. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 943 77 91 60 zenbakira.

ARETXABALETA

**> Thai masajeen gaineko ikastaroa**

Uztailaren 3an, 5ean, 10ean eta 12an izango dira eskolak, 17:00-19:00. Ikastaroa antolatu du Aredhana, Yoga eta psikoterapia taldeak. Izena emateko edo informazio gehiagorako, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

ARETXABALETA

**> Udako ordutegia udaletxean eta liburutegian**

Hemendik eta irailera bitartean 09:00etatik 14:00etara hartuko dituzte herritarrak. Liburutegian, irailaren 14ra arte egingo dute lan udako ordutegian: astelehen, eguazten eta barikuetan, 10:00-14:00, eta martitzen eta eguenetan, 10:00-13:00 eta 17:00-20:00 ordutegian.

BERGARA

**> Gaur, astelehena, zabalduko dute Agorrosin ekintzaguneko igerilekuetako berdeguna**

Gaur, uztailaren 2a, zabalduko dute Agorrosin ekintzaguneko kanpoko berdegunea. 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, baina igerilekuek betiko ordutegia izango dute uztailean ere: 07:00etatik 22:00etara, alegia. Dutxak, belarra, komunak eta jateko gunea daude berdegune berrian.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

ELGETA

**> 'Zure kanala sintonizatu' ikastaroa KZgunean**

Etzi izango da, 09:00etatik 10:00etara, euskaraz. KZguneko arduraduna egun horretan KZgunean egongo da 09:00etatik 13:00etara bitartean.

ARRASATE

**> Gazteendako ikastaroak Gazte Bulegoarekin**

Argazkigintza, gaur egungo dantza eta bitxigintza ikastaroak antolatu dituzte uztailerako. Izena emateko deitu 943 77 00 65 telefonora.

BERGARA

**> Musika Bandaren 175. urtemugako bazkaria**

Uztailaren 15ean izango da, Udal Pilotalekuan. Bazkari txarteak salgai daude, 30 eurotan, Lazkano oinetako dendan. Uztailaren 8ra arte eskuratu ahalko dira.

BERGARA

**> Sagarpe elkarteko bazkide izateko deia**

Bazkide izateko interesa daukaten eta 300 euroko sarrera egin ez dutenei, jakinarazi nahi zaie itxaron zerrenda sortu dutela. Hala, mezu bat bidali beharko dute helbide honetara: *sagarpe@yahoo.es*.

BERGARA

**> San Martzialeko fidantza jasotzeko egunak**

Uztailaren 9ra bitartean jaso daiteke, kultur etxean, 17:00-20:00.

## etxeko leihotik



**Oihane Agirre** > GOITBko programazio zuzendaria

# Jairik jai, herriz herri gabiltza alai-alai!

Sasoia da. Jaiak iritsi dira Debagoienera. Aukera egin behar dute askok: oporretara joan edo herrian geratu. Nik ez dut aukerarik izan eta hemen geratuta, sanjuanetan, sanpedrotan eta sanmartinetan ibili naiz. Elgetara ere joango nintzateke baina... Arrasateko jaietan bailarako jende asko ikusi dut, baita Eskoriatzan eta Aramaion ere. Baina jaietako protagonista nagusiak herritarrak dira. Herritarrek parte hartzen duten ikuskizunek izaten baitute arrakastarik handiena. Maalako kalean errementari dantza ikusten emozionatu egin nintzen. Ekimen polita izan zen erraldoi eta kilikien konpartsakoena: erraldoi "txikiak" atera zituzten, haurren neurrikoak. Kantera polita egingo dute Arrasaten! Egunero ibili dira kiliki eta erraldoiak, ez bakarrik Arrasateko kaleetan, baita Monterron parkean ere, bandaren kontzertuan dantzatuz. Bergarako errekortadoreek zezen plazako aforoa bete zuten eta errekorte bikainak ikusi genituen. Eta ezin ahaztu Txatxilipurdik haurrei eskainitako txokoa. Eguraldiak ez zien lagundu baina... Herriak parte hartzen jarraitzen badu, jaiek iraungo dute!

**"Herriak parte hartzen jarraitzen badu, jaiek bizirik iraungo dute"**

**> Eskoriatzako danborradan ere jende ugari parte hartzen eta ikusten, bai helduenean baita haurrenean ere! Atzo berriz, txistulari, trikitilari eta dantzariak izan ziren protagonista.**

**> Aramaion bereziki, gaur izango dira herritarrak jaietako protagonistak, koadrilen arteko pikean eta herri afarian. Ikusteko dago kaltzontzilo-kulero-tanga karrerak arrakastarik izango duen!**

## debagoiendarrak kanpoan

**Isabel Elortza** > Antzuola

# "Goierri aldeko bizilagunei kosta egiten zaie Antzuolako euskara ulertzea"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

**Badira urteak Isabel Elortza Antzuolatik Zerainera bizi izatera joan zela; ezkondu zenean, alegia. Askotan etortzen da bisitan Antzuolara, familiarekin eta, batez ere, amarekin egotera. Herriko jaietan ere, etortzeko asmoa duela aitortu digu; gainera, urtero egiten du koadrilarekin afaria.**

**Ezkondu eta Zerainera joan zinen bizi izatera. Orain dela zenbat izan zen hori?**

Urte mordoa da Zerainen bizi naizela: 25, hain zuzen ere. Garai hartan Antzuolan ari nintzen lanean, baina, ezkondu nintzenean, lana utzi eta Zerainera joan nintzen.

Gainera, bikiak izan genituen; hortaz, etxean geratu nintzen, umeak zaintzen. Hala ere, gerora, egin izan dut lan etxetik kanpo.

**Hala ere, ez zenuen Antzuolarekin harremanik eten.**

Ez, sarri joaten naiz herrira, familiarekin egotera; batez ere, amarekin. Aste bukaeretan, ama zaintzea egokitzen zaidanetan, han izaten naiz.

Bestalde, bi alaba ditut; bietako batek Antzuolan du koadrila, eta hura eramatera ere sarritan joaten gara. Herriko umeekin ibiltzen da, begirale lanetan; orain, udan, udaleku irekiak izango ditu.

**Antzuolako jaiak ere gainean ditugu. Baduzu etortzeko asmorik?**

Bai, urtero joaten gara, eta baita alabak ere.



GOIENKARIA

**Zerainera ezkondua**

Ezkondu eta Zerainera joan zen Isabel Elortza antzuolarra orain dela 25 urte; bi alaba biki izan zituen.

**Herriko jaietan, zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Jaiak orokorrean gustuko ditut. Baina, gehien, eguenean izaten den salbea gustatzen zait. Herriko koruak abesten du eta izugarria izaten da. Gero, gainera, koadrilarekin afaria izaten dugu; oraindik ere, herriko betiko lagunak daukazkat.

Bestalde, mairuaren alardea ere oso gustuko izaten dut. Jai polita izaten da.

**Urte hauetan guztietan, aldaketa handia nabaritu duzu Antzuolan?**

Bai, uste dut asko aldatu dela. Etxe asko egin dituzte; lehen, ortuak zeuden lekuetan, orain, etxeak daude. Bestalde, lantoki asko ere bota egin dituzte. Etxeetan, gainera, igogailuak jartzen ari dira; lehen, ez zegoen bat ere. Orain, etxe guztiek dituzte.

Herriko plazan egiten ari diren berrikuntzak ere ondo geratu dira. Elegante geratu da.

**Hainbeste urtetan, euskara ere aldatu zaizu!**

Bai, nahastu egiten ditut Antzuolako eta Goierriko euskarak. Antzuolan, Goierriko euskara egiten dudala esaten didate, eta Zerainen, berriz, ez dudala Gipuzkoako euskara egiten esaten dute.

Gure alabek ere, Antzuolan, bertako euskara egiten dute, eta hemen, Goierrikoa. Azken batean, biak nahasten ditugu.

Baina guk bi berbetak ulertzen ditugu; Zerain aldean, berriz, kosta egiten zaie Antzuolako euskaran berba egiten dugunean gu ulertzea.

**kale inkesta**

# Udako oporrak iritsi dira; eman duzu izena udalekuetan parte hartzeko?



**Nerea Alonso**
Ikaslea
Oñati

Aurten, hirugarren urtez nator eskolako udalekuetara; ingelesa praktikatzera eta hobetzera etortzen naiz, nire lagunekin batera. Gero, abuztuan, kiroldegian, mini-tenisa egiteko eman dut izena.



**Oihana Urtzelai**
Ikaslea
Oñati

Ez da lehenengo aldia udako ingeleseko udalekuetan parte hartzen dudana; beste urte batzuetan ere etorri izan naiz, eta oso gustura egoten naiz. Gainera, aurten, patinaje eskolak ere hartuko ditut.



**Mireia Elvira**
Ikaslea
Oñati

Urtero etortzen naiz ingelesezko klaseak hartzera udan. Udaleku irekiak dira, hortaz, ondo pasatzen dugu. Gainera, lagun artean egoteko aukera ederra izaten da. Abuztuan, mini tenisa praktikatuko dut.



**Nerea Bautista**
Ikaslea
Oñati

Urtero izaten naiz udalekuetan; orain, uztailean, ingeleseko udalekuetan eman dut izena, eta abuztuan, mini teniseko klaseak hartuko ditut. Lagunekin egoteko aukera izaten dut, eta oso ondo pasatzen dugu.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

BERGARA

**> Labegaraietako zubiaren alde bat, babesik gabe**

GOIENKARIAn agertu zen hainbat bergararrek salatutako arriskuaren berri: Labegaraietako oinezkoendako zubiaren bi muturretan, babes-barrak ez ziren nahikoak, izan ere, lurretik distantzia handiegira zeuden, eta azpitik umeren bat pasa zitekeen. Bada, irakurle batek honakoa idatzi digu: "Alde bateko barra konpondu zuten; baina bestea zegoenetan utzi dute. Espero dut ez zirela horrekin ahaztuko eta laster konponduko dutela!"

OÑATI

**> Zorionak Torreauzoko Kroseko antolatzaileei!**

Oñatiko kirolzale batek zoriondu egin gura ditu Torreauzoko Krosa antolatu duten guztiok: "Primeran antolatu dute; hala, lasterketa hasieran, Etxe-Aundin, segurtasun zaintzaile bat zegoen, autoak geldiarazten; eta, bukaeran, ura eta salda ipini zizuten denondako. Horrela ahal dira herriko kirol txapelketak bultzatu!"

ARRASATE

**> Gazteak ez daitezela gauean kalean uluka ibili**

"Oso ondo dago institutuko gazteek oporrak goiz hartzea, eta normala iruditzen zait udako gauak aprobetxatu gura izatea. Baina, gelan ikasten dutenaz gain, jakin beharko lukete gizabide apur bat ere, eta kontuan hartu gehienok lasaitasuna eta loa behar ditugula ordu horietan. Hori diot asko uluka, oihu baten eta zarataka ibiltzen direlako kalean", diosku arrasatear irakurle batek.

**usteak uste**

**Mireia Bikuña**

# Oporretan, zer egin umeekin?

Badira hamar egun ikastetxeetan oporrak hartu zituztela. Hortaz, badira hamar egun, lanera joateko, gure seme-alabak non utzi erabakitzeko arazoak ditugula.

Nik, zorionez, aiton-amonen eta izebaren laguntza izaten dut. Hala, ematen didaten laguntzagatik, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet lerro hauen bidez.

Bada, denek ez dute zorte berbera. Batzuk haurtzaindegi zerbitzuaz baliatzen dira. Baina, horrek ere muga dauka: Oñatin, zortzi urtera arteko umeak onartzen dituzte haurtzaindegietan. Hala, adin horretatik aurrerako seme-alabak dituztenek nahiko buruhauste izango dute.

Eskerrak, gaur bertan, udaleku irekiak eta udako kirol kanpaina abian jarri diren.

A ze lasaitasuna!

**zorroztailea**



**Jabier Arantzeta**

# Hori dok demokrazia gogoa!

"Paulino Luesmak (...) EAE-ANVko hautetsiei ohartarazi die alkatetza erdietsi duten herrietan "legez kanpoko" galdeketak egiten baditu, neurri legalak hartuko dituela haien aurka. Hala, EAE-ANVren esku dauden Udalek legea urratu ez dezaten "erne" egongo dela esan du Luesmak."

Berria > 2007-06-29



Erne, beraz, legea inork urratu ez dezan; izan ere, badirudi gaur egungo Espainian horrexek bakarrik duela garrantzia. Legea urratu edo ez urratu, demokraziaren oinarria hori delakoan.

Eta ez, demokraziaren oinarria ez da inolaz ere legea; demokraziaren oinarria herritarren borondatea da, eta ez legea. Legeak erreminta bat besterik ez luke izan behar herriaren borondatea zein den jakin eta betetzeko. Baina aspalditxotik dakigu denok, askotan, legegileek, politikariak diren neurrian, herriaren borondateari baino garrantzi handiagoa ematen diotela agintzen jarraitzeari, eta, horretarako, eurei komeni zaizkien legeak sortzen dituztela.

Europako demokrazietan, zorionez, lege horiek lotsagarriak direnean, ez dute aurrera egiten, eta arazo handi barik konpontzen da asuntoa. Baina, Aznar jauna agintera iritsi zenetik, Espainian ez da horrelakorik eman, eta zeharo lege lotsagarriak eman dituzte; espero dezagun, horietako batzuk Hagako Epaitegian aztertzen direnean, Balkanetako zereginak bukatzen dituztenean edo, Europako demokraziak bere lekuan jarriko dituela.

**"Demokraziaren onarria herritarren borondatea da, eta ez legea"**

**"Pozik jarraituko dute, legea bete eragin dutela, baina aurrerabide barik"**

Baina, bitartean, legea nagusi. Eta, legeena gutxi balitz, hor ditugu epaile guztiz ahaltsu eta guztiz jakintsuak, lege horiek erabat aldrebesenean indarrean jarriko dituztenak. Nahiz eta astakeriak neurri barikoak izan: Lizartzakoa, esaterako, edo berba egiteagatik Lehendakaria epaitegira eramatea, edo zerrenda "kutsatu eta ez kutsatuena". Eta hau guztiau, hau esan beharra baitago, Espainiako komunikabide nagusien babesean.

Eta horrela, pozik jarraituko dute, legea bete eragin dutela eta, baina ez dago aurrerabiderik. Beste hainbat urtetan, denbora galtzen jarraituko dugu, horrek dakarren sufrimenduarekin, eta horrela, ez goaz inora. Demokrata izateko ez delako nahikoa hori esatea; demokrata izateko, besteak dioena ere entzun egin behar da, eta gehiengoa zein den jakiten saiatu, eta hori errespetatu.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



**> OÑATI**
Uarkaldeko babes ofizialeko 40 etxeren zozketarako 556 lagunek eman dute izena **> 12**



**> ESKORIATZA**
Espaloiak, kale-argiak, aparkalekuak... egin dituzte Dorleta auzoko lanen bigarren fasean **> 13**



**> LEINTZ GATZAGA**
Infantil mailako pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte datorren domekan **> 14**

**ESKORIATZA** > ERAKUSKETA

# Espaniako Gerra irakaskuntzan zelan landu duten ikusteko aukera

**GERNIKA**
Gernikako Bakearen museotik ekarri dute erakusketa

**UDA OSOAN**
Irailaren 16ra arte egongo da zabalik 'Irakatsi gabeko ikasgaia' Ibarraundin

**OSAGAIAK**
31 panelek osatzen dute erakusketa; 17 jarri dituzte herrian




**GARAIKOAK** Gerra garaiko irrati bat eta liburu bat erakusketan. JOSETXO ARANZABAL

**EDURNE BURGAÑA** > ESKORIATZA

Espainiako Gerra amaitu ondoren, zer erakusten zitzaien garai hartako ikasleei? Gure seme-alabek, XXI. mendeko gazteek, zer ote dakite 1936 eta 1939 urteen bitartean gertatutakoari buruz? Galdera horiei eta antzeko beste askori erantzuna emateko, Eskoriatzako Ibarraundi museoan *Irakatsi gabeko ikasgaia* erakusketa zabaldu dute. Irailaren 16ra arte iraungo du.

**GERNIKATIK IBARRERA**

Gernikako Bakearen museokoek prestatutako erakusketa da, baina Eskoriatzakoak ere eman zuen bere laguntzatxoa. Izan ere, erakusketa prestatzen zebiltzala, herrira deitu zuten gernikarrek, gerraren gaineko materialek ba ote zuten galdetzeko. Baietz erantzun, eta bertara agertu ziren, argazki eta gainerako materiala ikusteko. Gero, informazio horrekin eta beste iturri batzuetatik jasotakoarekin, *Irakatsi gabeko ikasgaia* egin zuten.

Oraintsu arte, Gernikako museoan egon da, baina orain, Eskoriatzan dago ikusteko aukera. Espainiako Gerra eta Gernikako bonbardaketa nola ikasi diren eta nola ikasten diren adieraztea da helburua. Erakusketa 31 panelek osatzen dute, baina Ibarraudira 17 ekarri dituzte, museoan guztientzako tokirik ez dagoelako.

**IRAKURTZEKO PANELAK**

Ikusleak bere erritmora ikus dezake erakusketa. Ikusi baino gehiago, irakurri. Izan ere, panel horietan testua azaltzen da, eta bisitari bakoitzak bere erritmoa hartu eta ikusten du, garai batean, gerrako garaileek nola kontatzen zituzten gauzak.

Ikasle gazteak izatean, orain dela 70 urte gertatutakoak ikastea aiton-amonen ipuina izan daiteke; aspaldiko kontua. Gero, denbora aurrera joan ahala, gaiek gunerokotasuna hartzen dute. Pertzepzioaren aldaketa adinak ematen du, baina heziketaren ondorioa ere bada. Eskolan ikasitakoak pertsonen, inguratzen gaituenaren eta gure iraganaren ezagupen zabalagoa edukitzen laguntzen du.

Kontu guztiak sasoi batean nola irakasten ziren, eta egungo testuliburuetan nola datozen ikusteko aukera ematen du Ibarraundiko erakusketak.

Astean zehar, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; zapatuetan, 17:00etatik 20:00etara, eta domeketan, 12:00etatik 14:090etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**UDALA** > LANPOSTUAK

# Argitaratu dute udal lanpostuen gaineko deialdi ofiziala

Funtzionario izateko zazpi lanpostutarako deialdia egin dute; hiru lan poltsa ere osatzeko daude

Estatuko Buletinean argitaratu eta hogei eguneko epea izango da izena emateko

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Arrasateko Udalak iragarri zuen, orain hamabost egun, hainbat udal lanpostu betetzeko deialdia egin behar zuela, lehiaketa irekia antolatzeko asmoarekin. Bada, oraingo astean argitaratu ditu lanpostu horien gaineko nondik norako guztiak Udalaren webgunean: *www.arrasate-mondragon.org*.

Labur esanda, zazpi funtzionario behar ditu Udalak hainbat sailetako postuetarako; bitarteko funtzionario bi –arkitektoa eta ehorzlea– eta Udalarekin lotutako hiru lan poltsa betetzea.

**FROGAK, IRAILEAN**

Berez, oraindik ez dago izena emateko data zabalik. Izan ere, halako deialdi bat egiteko prozedura luzea izaten da: Udalak deialdia argitaratu eta gero, Gipuzkoako Buletinera bidali behar dira oinarriak, eta gero, Madrilera, BOEn (Estatuko Buletinean) argitara dezaten. Horregatik, Udaleko Enplegu Sailak (deialdia egin duenak) oraindik ez daki zein data izango duen lanpostuetarako izenak hartzen hasteko.

Dena den, udako oporrak gainean ditugula kontuan hartuta, Udalak eskatuko du irailera begira argitara dezatela deialdi hori: "Ahaleginduko gara eskatzen deialdia abuztu amaieran argitara dezaten. Horrela, izenemate epea irailaren hasieran izango litzateke. Dena den, ezin dugu seguru esan lortuko dugunik", adierazi du Enplegu Zerbitzuak.

Behin deialdia argitaratuta, 20 egun natural izango dira izena emateko. Hori egin beharko da Biztanleen Arreta Zerbitzuan, bulego orduetan. Bestalde, lanpostuen oinarriak-eta udal webgunean daude argitaratuta.

LANPOSTU MOTAK

### Funtzionarioak, bitartekoak eta lan poltsak

Honako funtzionario postuak bete gura ditu Udalak: administraria, informatikaria (Udalerako), euskara irakaslea (Udal Euskaltegirako), informatikari laguntzailea (Kulturaterako), hodi iturgina (ur lantalderako) eta bi peoi (obretako lantalderako). Bestalde, Udalak goi mailako arkitektoa eta ehorzlea behar ditu, bitarteko funtzionario izateko. Interesa dutenek etzi, uztailak 4, eta egubakoitzean, hilak 6, aurkeztu beharko dira frogak egiteko. Horrez gainera, hiru lan poltsa osatu gura ditu Udalak: Iturbide egoitzarako erizainen lan poltsa bat (frogak uztailaren 11n), eta Udal Euskaltegirako bi.




TXOMIN MADINA

## Sexuen arteko berdintasunaren aldarrikapena

Eguenean, ekainaren 28an, Gay, Lesbianen eta Transexualen Nazioarteko Eguna gogora ekarri zuten. Hainbat herritarrek eta Aralar, Ezker Batua-Berdeak, EAE-ANV eta Zutik alderdietako ordezkariek sexuen arteko berdintasuna eta homosexualen eta transexualen eskubideak aldarrikatu zituzten Herriko plazan, kale agerraldi batekin. Argazkiak erakusten duen moduan, dolu-xingola dute banderek; izan ere, egun berean Malen Errasti arrasatearra hil zen eta, bestelakoen artean, berdintasunaren defendatzaile sutsua izan da hura.

**GIZARTEA** > MALEN ERRASTI HIL ZEN

# Agur hunkigarri eta jendetsua Malen Errastiri

Negar, txalo eta musika artean agurtu zuten eragile ezaguna senide eta lagunek

**U.M.** > ARRASATE

Egubakoitz eguerdian, talde handia batu zen San Kristobal hilerrian, Malen Errastiri azken agurra esateko. Malen Errasti eguenean hil zen, gaixotasunak jota, "ekainaren 28an, eguzkia irte zenean", haren lagun Julia Mongek esandako moduan. Emakumeen, langileen eta, oro har, zapalduen eskubideak defendatu zituen Errastik.

Herritarrak, Udaleko lehengo eta oraingo ordezkariak –Ino Galparsoro alkatea eta Xabier Zubizarreta alkate ohia tartean– eta elkarte feministetako eta Ezker Batua eta Zutikeko kideak ondoan izan zituen Errastik.

Gorpua erre aurretik, haren izaera borrokalaria gogorarazi zuten. Emakumeen eskubideen aldeko kantu eta Internazionalaren doinuek lagunduta esan zioten *agur, Malen, beti gogoan*.



**HERRITARRAK** Arrasatear asko, Errastiren hilkutxaren aurrean. UBANE MADERA

> ATXILOKETAK

### Lau gizonezko atxilotu zituzten martitzenean, Meatzerrekan eraikin bat okupatzeagatik

Meatzerreka auzoan higiezin bat baimen barik okupatzearren, lau lagun atxilotu zituen Ertzaintzak. Barne Sailak jakinarazitakoaren arabera, "sarrerako horma apurtu ostean" sartu ziren eraikinera lau gizonezko, 26 eta 33 urte bitartekoak. Horrenbestez, "usurpazio delitua egotzita" atxilotu egin zituen Bergarako komisaldegitik etorritako ertzainek. Horrez gainera, "horietako hiru maiatzaren amaieran higiezin berean atxilotu zituztela egiaztatu zuten" poliziek.

> GAZTEAK

### Eguaztenean aurkeztu zuten Udaixe programa; irailera arte izango dira gazteendako ekimenak

Eguaztenean aurkeztu zuten Txatxilipurdi elkarteak uda sasoian gazteei begira antolatzen duen Udaixe programa. Besteak beste, irailera arteko egitaraua iragarri zuten. Are gehiago, joan den astean bertan egin zituzten zenbait ekimen, eta oraingo asterako ere iragarri zituzten beste batzuk. Tartean, gaur Zarautzera joatekoak ziren, surf ikastaroa egitera; etzi, eguaztena, Txatxilipurdiren egoitzaren kanpoan mural bat margotuko dute; eta egubakoitzean, Landara joango dira, arratsalde pasa.

> ZERBITZUAK

### Mojategi ez dute zabalduko gaur, astelehena, aurreikusita zuten moduan

Mojategiko kirol instalazioak ez dituzte zabalduko uztailaren erdialdera arte. Hala jakinarazi zuen Udalak egubakoitzean. Udalaren asmoa zen gaur, aastelehena, zabaltzea instalazio berriak herritar guztiendako, baina, obretan sarri gertatzen denez, atzerapena izan dute Mojategikoek eta irekiera data atzeratu egin behar izan dute. Edozelan ere, Udalaren asmoa da ahalik eta lasterren zabaltzea Mojategin dauden paddle, skate, errugbi, futbol eta bestelako kirolak praktikatzeko instalazioak.



**BOZKETA** Auzoko saloian jarri zituzten bi hautestontziak; Goimendi eta Zabaleta auzoetara, hautestontzi ibiltariak eraman zituzten. JOSETXO ARANTZABAL

**HERRI GALDEKETA** > AHT ETA AUZO ALKATE AUKERAKETA

# AHTren alde ez dagoela esan du Angiozar auzoak herri galdeketan

Angiozar bailarako alkatea eta batzarra aukeratzeko hauteskundeak ere egin zituzten domekan, eta Mila Elortza aukeratu dute alkate izateko

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Angiozarko auzotarrek esan dute ez daudela AHTren alde. Proiektu horren gaineko herri galdeketa egin zuten domekan. *AHTren alde nago?* galderari Bai edo Ez erantzun behar zioten, eta gehienek ezetz erantzun dute. Bozketaren emaitzak dira: Bai: 4; Ez: 193; zuri: 10; eta baliogabetuak: bat. Parte-hartzea %83,87koa izan da. Herri galdeketaren emaitzak udaletxean aurkeztuko dituzte, eta Udalari galdetuko diote zertan lagunduko dien iritzi hori errespetatzeko. Bestalde, zapatuan, AHTren inguruko topaketa egin zuten Elorrion, eta hango alkateak hiru konpromiso hartu zituen EAE-ANV dagoen Udal guztietan, tartean Bergara, zabaltzeko: informazioa lortu eta herriari eman, hasitako obrak gelditu, eta, informazioa eman ostean, herriari iritzia galdetu. Paulino Luesma Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak esan du errekurritu egingo dituela galdeketak. Galdeketarekin batera, auzo alkatea eta batzarra ere bozkatu dute Angiozarren; parte-hartzea izan da %85ekoa.

**Mila Elortza** >
Angiozarko auzo alkatea

## "AHTk baldintzatzen ditu auzoko proiektuak"

**O.E.** > BERGARA

**Mila Elortza aukeratu dute auzotarrek, hirugarren aldiz, Angiozarko auzo alkate izateko. Bere ondorengoak dira Jose Angel Arriaran eta Jose Angel Mikeo. Auzo batzarreko beste 17 kideak ere aukeratu dituzte.**

**Zorionak!**
Eskerrik asko.

**Zein da auzoaren premiarik larriena?**
Proiektuak badaude: eskola zabalik edukitzea, auzoetako ur eta gas hornidura bermatzea eta Goimendi eta Zabaleta auzoak kalearekin lotzea, adibidez. Hirugarren horretarako lanak aurreratuta daude, baina Udalak ez die lehentasunik eman. Ea Udal berriarekin gauzak aldatzen diren.

**Zer eskatzen diozu Udal berriari?**
Orain arte, ez da auzo batzorde finkorik egon udaletxean, eta, horrekin, auzoen eta Udalaren arteko elkarlana errazagoa izango litzatekeela uste dut, auzo guztiak ditugu antzerako arazoak eta.



GOIENKARIA

# Zinegotziak soka dantza egiten San Martzialen

Aspaldiko partez, herriko alkate eta zinegotziek dantzatu dute San Martzialen urtero egin ohi duten soka dantza. Horixe izan da aurten San Martzial eguneko berritasuna, eta ikusmina sortu duena. Jendearen txaloen arabera, gainera, ez dute gaizki dantzatu. Eurekin batera egin dute dantza Xamatzeko dantzariek eta azken urteetan dantza bizirik gordetzen lagundu duten herritarrek. Udal ordezkariekin batera bazkaldu zuten Mizpirualdeko nagusiek eta Santa Marinako parrokoak.



JOSETXO ARANTZABAL

ETXEBIZITZA > ZOZKETA

# Uarkaldeko etxeen zozketarako, 556 izen

Babes ofizialeko 40 etxebizitzen zozketan erabiliko den behin betiko zerrenda ikusgai dago

Behin-behineko zerrendaren gainean aurkeztutako 15 alegazioak atzera bota dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Uarkalden eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxebizitzen zozketarako onartu den zerrenda ikusgai dago Santa Ana antzokiko beiratean.

Hala, behin betiko zerrendan, guztira, 556 izen onartu dira. Edozelan ere, uztailaren 10ean egingo den zozketan, 40 etxebizitza zozketatuko dira.

**IZENAK, HIRU ATALETAN**

Santa Ana antzokiko beiratean jarri den zerrendako izenak hiru ataletan banatu dira, uztailean egingo den zozketak hiru atal izango ditu-eta.

Lehenengo zerrendan, elbarrituendako egokitutako etxeen zozketan parte hartuko duen izena zehazten da; izen bakarra jaso da, eta bi etxebizitza zozketatuko dira.

Bigarren atal batean, hiru edo seme alaba gehiago dituzten familiak sartu dira: guztira, bost izen. Hortaz, hiru logeladun 28 etxeetatik bi familia ugariendako erreserbatu dira. Edozelan ere, zein etxe izango diren ez da zehaztu.

Familia ugariendako etxeen zozketan zorterik ez dutenek hirugarren eta azken zozketan sartzeko eskubidea izango dute. Hirugarrenean, bi logelako 26 etxebizitza zozketatuko dira. Hala, zozketa honetarako, 550 izen jaso dira.

Santa Ana aretoan jarri diren zerrendetan, prozesutik kanpo geratu direnen izenak ere jaso dira. Orain hilabete ikusteko jarri zuten behin-behineko zerrendarekin alderatuta, egun ikusgai dagoen zerrendan, zazpi izen gutxiago agertzen dira.




**UARKALDE** Lehen promozioko babes ofizialeko etxeak bukatzear daude. MIREIA BIKUÑA

**HAMABOST ALEGAZIO**

Behin-behineko zerrenda ikusgai egon zen artean, ekainaren 14ra arte, hamabost alegazio jaso zituzten Udal bulegoetan. Ondoren, alegazioak aztertu ziren, eta guztiak baztertu egin zituzten. Bakarbakarrik, zozketan parte hartzeari uko egiten ziotenen eskaerak onartu ziren.

Haren ondotik, Uarkaldeko zozketarako zerrenda osatu da.

## Zozketa, uztailaren 10ean, kiroldegian

Uarkaldeko babes ofizialeko bigarren promozioko etxebizitzen zozketa uztailaren 10ean egingo da, Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan. 17:30ean hasiko den zozketa horretan, lehen promozioko etxeen zozketan erabilitako sistema bera erabiliko da. Hala, zerrendako zenbaki bat aterako da, eta, handik aurrera, etxeak esleitzen hasiko dira.

Bestalde, etxea eskuratzen dutenek aurkeztu beharreko dokumentazioaren berri ematen da Santa Ana antzokian jarri diren zerrendetan. Dokumentazioa aurkezteko epeak ere zehazten dira.



JOSETXO ARANTZABAL

## 70 lagun egubakoitzeko afari solidarioan

Parrokiako Misio Taldeak, egubakoitzean, oporrak hartu aurreko azken afari solidarioa egin zuen. 70 lagun elkartu ziren Bidaurretan egindako afarian. Lehen-lehenik afaria egin zuten, honako menuarekin: patata tortilla letxugarekin. Ondoren, berriketaldia egin zuten, jaiotzez oñatiarra den Yago Abeledo misiolariarekin.

Parrokiako Misio Taldeak hiru hilabetero egiten ditu afari solidarioak, eta herritar guztiei daude irekita.

AISIALDIA > UDALEKUAK

# Gaur hasi dira udaleku irekiak

Uztailaren 27ra arte, txanda bakarrean egingo diren udalekuetan, 224 neska-mutikok parte hartuko dute

M.B > OÑATI

Goizeko hamarretan ziren hastekoak gaur 2007ko udaleku irekiak. Txanda bakarrean egingo dituzte udalekuak, eta uztailaren 27ra arte izango dira.

Guztira, 3 urtetik 10 urtera arteko 224 neska-mutikok parte hartuko dute. Horiekin batera, 23 begirale eta bi laguntzaile ibiliko dira.

**ZUAZOLA INSTITUTUAN**

Aurtengo udalekuek duten berrikuntza nagusia lekua bera da. Azken urteetan, umeak Gaztelekuan utzi eta jaso dituzte gurasoek. Bada, aurten, topagunea Zuazola Institutua izango da. Gaztetxoenak, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8 urteko neskatila-mutikoak, institutuko gimnasioan elkartuko dira. Nagusienak, aldiz, 9 eta 10 urteko neska-mutikoak, institutu aurrealdean elkartuko dira.

Udalekuetan egingo dituzten ekintzen artean, San Fermin eguneko ospakizuna dago. Aurten, San Fermin eguna uztailaren 6an ospatuko dute udaleku koneska-mutikoek. Halaber, udalekuak bukatzeko, festa egingo dute plazan.

**ESKORIATZA** > HIRIGINTZA

# Bukatutzat eman dute Dorleta auzoa eraberritzeko lanen bigarren fasea

Bigarren fasean, espaloi, kale-argi eta aparkaleku berriak egin dituzte eta, lur azpian, saneamendu, telefono, argindar eta bestelako zerbitzuak jarri dituzte


**DORLETA** Itxura berria du auzoak, baina lur azpiko instalazioak ere hobetu egin dituzte. JOSETXO ARANTZABAL

**IKER BARANDIARAN**> ESKORIATZA
Azken urtean, Dorleta auzoa erabat eraberritzen dabiltza Udala eta auzotarrak. Auzotarrak etxe guztietako fatxadak konpontzen dabiltza; Udala, berriz, auzoa eraldatzen.

Lehenengo fasean, saihesbide parean, hainbat aparkaleku egin zituzten; eta bigarren fasean, lan ugari egin dituzte. Hirugarrenean, Dorletatik Aranburuzabala kale atzealdera pasabidea egingo dute, eta Dorleta kaleko 17. zenbakitik 18. zenbakira bitarteko tramua konpondu egingo dute. Hirugarren fasea oraindik ez dute indarrean jarri.

Bigarren fasean, auzoko azpiegitura eta zerbitzu berriak jarri dituzte; eta espaloi, kale-argi eta aparkaleku berriak egin dituzte. Horrez gain, saneamendu, telefono, argindar eta bestelako zerbitzu guztiak lur azpian jarri dituzte; eta HUHEZI alboan 42 aparkaleku berri daude orain. Lanak Fonorte enpresak egin ditu, eta 2.000.000 euro inguruko kostua izan dute. Kostu horren herena Jaurlaritzaren Izartu programak ordaindu du, eta gainontzekoa, Udalak.

Bestalde, Udalak jakinarazi du erreka ondoan eskudel batzuk jarriko dituztela, eta lur azpiko edukiontziak abian jartzeko sistema jarriko dutela.

**ARETXABALETA** > KULTURA

# Egubakoitzean hasiko dituzte uztaileko film emanaldiak

Euskal Herrian egindako bi film eta AEBetako bi lan ezagun emango dituzte Herriko plazan egubakoitzetan


**FAMILIA XELEBREA** *Pequeña Miss Sunshine* komedia oso berezia da. GOIENKARIA

**I.B.** > ARETXABALETA
Aurreko urteetan moduan, aurten Udalak film emanaldiak egingo ditu Herriko plazan uztaileko lau egubakoitzetan, 22:30ean. Lehena hilaren 6an egingo dute, eta horretarako dokumental berezi bezain gozagarria aukeratu dute: *Nomadak TX*. Oreka TX txalaparta taldeak munduan barrena instrumentuekin batera egindako bidaia kontatzen du. India, Laponia, Mongolia eta beste herrialde batzuetako musikariekin arituko dira.

Hilaren 13an, berriz, *Pequeña Miss Sunshine* komedia ganberroa emango dute. AEBetako familia xelebre baten bidaiaren kontakizunak sari ugari jaso ditu nazioarteko jaialdietan.

Hilaren 20an, *Eutsi* filma emango dute leku eta ordu berean. Asier Hormaza eta Anjel Alkain protagonista dituen komedia gazi-gozo horrek 80ko hamarkada bukaerako industria-birmoldaketa du ardatz.

Bukatzeko, uztaileko azkeneko egubakoitzean, 27an, Alejandro Gonzalez Iñarritu zuzendariaren *Babel* filma emango dute. Iñarrituk, ohi duen moduan, hainbat istorio desberdin batu ditu film berean.

**ARETXABALETA** > ERRETIRATUAK

# Basotxokoek bi irteera egingo dituzte uztailean

Hilaren 10ean, Landatik barrena irteera egingo dute; eta hilaren 12an, berriz, kostaldera joango dira

**I.B.** > ARETXABALETA
Basotxo erretiratuen elkartekoek uztaileko eguraldi onari probetxua atera gura diote. Hain zuzen ere, uztailean bi txango egingo dituzte. Batetik, hilaren 10erako, mendi irteera antolatu dute: hain zuzen, Landa-Uribarri-Landa ibilbidea egingo dute bidegorritik barrena.

Hilaren 10ean, 08:30ean egin dute hitzordua Basotxo elkartean, eta handik Landara abiatuko dira autobusean. Gero, Landako bidegorria baliatuko dute paseoa egiteko.

Landatik barrena paseoa egin gura dutenek aurretik Basotxo elkarteko bulegoan izena eman beharko dute. Horretarako aukera izango da bihar, martitzena, 10:30etik 12:30era bitartean.

**KOSTALDERA TXANGOA**
Horrez gain, hilaren 12an, Donostia-Aia-Zarautzera txangoa egiteko asmoa ere badute. Hala, 09:00etarako, Azbe lantegi pareko autobus geltokian hitzordua egin dute. Horren ostean, 10:15 aldera, Donostian denbora librea izango dute 13:30 arte; ordu horretan, Aiara joango dira, han bazkaltzeko.

17:00etan, berriz, Zarautzera joko dute, eta, 19:45 aldera, Aretxabaletarako bidea hartuko dute.

**GAUR ETA BIHAR, IZENEMATEA**
Kostaldera joan gura dutenek gaur eta bihar dute aukera elkartean izena emateko, 10:30etik 12:30era bitartean. Bazkideek 23 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek, berriz, 28 euro. Bakoitzak lau txartel hartu ahal izango ditu gehienez.



ARRAKASTA Zuiako Koadrilako nagusi dezentek parte hartzen du topaketetan, iazko argazkiak erakusten duen moduan. GOIENKARIA

ARAMAIO > AISIALDIA

# X. Adinekoen Topaketa, nagusiendako hitzordua

Izena eman behar da datorren uztailaren 6a baino lehen, udaletxean, eta 26 euro da

UBANE MADERA > ARAMAIO

Zuiako Koadrilak egin du hitzordua koadrilako herrietako pertsona nagusiei begira. Izan ere, uztailaren 13an egingo dute X. Adineko Pertsonen Topaketa.

Aurtengo topaketan, Aguraingo Eskualdea ezagutzea izango da helburua.

Egitaraua ere finkatu dute: 10:30ean hasiko dira bisita kulturalak egiten. Taldeka banatu eta honako lekuak bisitatuko dituzte: Miko-Nestle enpresa, Gazeoko eliza erromanikoa, Aguraingo alde zaharra, Celigueta enpresa eta Elgea mendilerroko parke eolikoa.

13:00etan, berriz, meza entzungo dute, eta 14:15ean, bazkaria egingo dute Estibaliz jatetxean.

Arratsaldekoari dagokionez, 16:30ean magia ikuskizuna, 17:30ean opari zozketa eta, horren ostean, dantzaldiarekin borobilduko dute eguna. 20:00etan bueltatuko da nor bere herrira.

Parte hartzeko, izena eman beharra dago. Hori egin behar da uztailaren 6a baino lehen. 26 euro ordaindu behar dira, Vital Kutxan.

ELGETA > AISIALDIA

# Uztaileko aisialdi zerbitzurako, 46 lagun apuntatu dira

3-6 urte bitarteko umeendako ekintzak izan du arrakasta handien; bestalde, tai-chia egiteko 12 laguneko taldea osatu da aurten

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Gaur hasi da Elgetan Uztaileko Aisialdi Zerbitzua. Elgetako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin urtero egiten duen programa da honakoa. Aurten, 46 izenemate izan dira.

Antolatzaileek hainbat ekintza eta proposamen egin dituzte aurten, guztiak ere uztailaren 2tik 20ra bitartean burutuko direnak. Aurrera egin dutenak, baina, bi izan dira; tai-chi ikastaroa eta 3-6 urte bitarteko umeei zuzendutako aisialdi zerbitzua.

"Konturatu gara 6-12 urte bitarteko ume asko udalekuetara doazela, gehienak Elgetatik kanpora", esan du udal kirol teknikari Oskar Carrascalek. Carrascalen ustean, hori izan daiteke adin tarte horretako eskaintzek aurrera egin ez izanaren arrazoia. "Horregatik, akaso, aurten aurreko edizioetan baino ume gutxiagok eman du izena".

Aurten egindako proposamen berriei dagokienez, ez da talderik sortu batuka saioetarako. "Zerbitzua bi egunez eskaintzea aurreikusi genuen, eta bi saioetako bat, gainera, bariku arratsaldeko azken orduan". Carrascalek azaldu du konturatu zirela horrekin, baina irakaslearen agendaren araberako erabakia izan zela.

3-6 urte bitarteko umeei zuzendutako aisialdi ekintzek izan dute arrakasta handiena. Lehenengo txandak (uztailak 2-6) 12 ume hartuko ditu. Bigarren txandak (uztailak 9-13) 11 hartuko ditu, eta hirugarrenak (uztailak 16-20), beste 11. Ume horiek aisialdi ekintzak izango dituzte, beraz, astelehenetik barikura 10:00etatik 13:00etara Elgetako Eskola Zaharretan.

**LAU BEGIRALE**

Uztaileko Aisialdi Zerbitzua eskaintzeko, Udalak lau begirale kontratatu ditu aurten. Umeekin, hiru arituko dira; Maialen Elortza, Nagore Ojanguren eta Sandra Gonzalez. Tai-chi ikastaroa Asunek emango du.

ANTZUOLA > UDALA

# Batzordeak eratuta geratuko dira osoko bilkuran, eguaztenean

Uztailaren 4an, eguaztena, 18:30ean, egingo dute agintaldi berriko lehenengo osoko bilkura

Aurrerantzean udalbatzarrak noiz egingo dituzten ere zehaztuko dute batzarrean

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Ekainaren 16an, eratuta geratu zen udalbatza berria, eta alkate berria aukeratu zuten. Orain, uztailaren 4an, agintaldi berriko lehendabiziko osoko bilkura egingo dute, 18:30ean. Badirudi aurrerantzean ere horixe izango dela osoko bilkurek izango duten eguna eta ordua; hau da, hilabeteko lehenengo eguaztenetan, 18:30ean, izango dira, seguruenik, osoko bilkurak. EAE-ANVko ordezkarien proposamena horixe izango da.

Bestalde, batzorde informatzaileak eta Gobernu Batzordea ere eratuta geratuko dira etziko bilkuran. Zazpi batzorde informatzaile izango ditu Udalak datozen lau urteotan: Hirigintza; Kultura; Gizarte Ongizatea, Euskara eta Hezkuntza; Kirolak eta Gazteria; Nekazaritza eta Ingurumena; eta Ogasuna. Batzorde horiek zela osatuko dituzten eta batzorde bakoitzaren ardura zein zinegotzik hartuko duen erabakiko dute batzarrean.



UDALBATZA BERRIA Ekainaren 16an osau zen udalbatza. GOIENKARIA

Osoko bilkurako beste puntu bat honakoa da: udalbatzarraren aginpekoak diren elkarteetan parte hartzeko ordezkariak izendatzea. Elkarte horiek honakoak dira: Debagoieneko Mankomunitatea, Suradesa, Gipuzkoako Ur Partzuergoa, Mizpirualde, Eskola Kontseilua, EUDIMA, UEMA, EUDEL eta Mendi Nekazaritza.

Azkenik, alkatetzaren dekretu baten berri emango dute; dekretu horretan, alkateordeak izendatu dituzte: lehenengoa izango da Patxi Olabarria eta bigarrena Pilar Etxaniz.

LEINTZ GATZAGA

# Herria girotuko dute pilota partiduek

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Infantil mailako pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte domekan, hilak 8, eta jai giroa izango da herrian. Zazpi eta hamahiru urte arteko mutikoek jardun dute txapelketan eta hainbat herritatik etorriko dira: Arrasate, Bergara, Azpeitia, Elorrio, Amurrio eta Azkoitia. 10:00etan hasiko dituzte partiduak, eta 14:30 inguruan bukatuko dutela aurreikusi dute antolatzaileek. Ondoren, mahaiak jarriko dituzte pilotalekuan bertan, eta bazkari pasara egingo dute: marmitakoa helduendako eta oilaskoa pilotari gazteendako. Bazkalostea gura beste luzatuko dute, batzuk musean egindа eta beste batzuk jolasean.

# Kirola



**> ZIKLISMOA**
29. Gatzagako Ama proban 95 lagunek hartu zuten parte **> 16**



**> PILOTA**
Mendizabalek irabazi du Elgetako lau t'erdikoa **> 19**



**> KIROL EGOKITUA**
Iturripen jokatu zen zapatuan 16. jaia **> 20**



**> ESKUBALOIA**
Egubakoitzean, ibarreko hainbat sarituko ditu federazioak **> 21**



**PODIUMA** Lasterketako irabazleak, El Guarrah eta Petite, garaikurrekin. ARANTZAZU EZKIBEL

**OÑATI** > X. TORREAUZOKO KROSA

# Cristina Petitek errekorra ezarri du emakumezkoetan

**GIZONEZKOAK**
Mohammed El Guarrah izan zen lehena; Bilbokoak 23:09ko denbora egin zuen

**PARTE-HARTZEA**
Inoiz baino parte-hartze handiagoa izan du aurtengo Torreauzoko Krosak

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Garaipena eta errekorra, biak eskuratu zituen atzo Cristina Petitek X. Torreauzoko Herri Krosean (26:06). Orain hamar urte Nieves Zarzak egindakoa atzean utzi du, beraz, Petite beteranoak.

**149 LASTERKARI**

Goizeko 11etan hasi zen helduen lasterketa. Ordurako, korrikalari guztiak Torreauzoko Etxe-Aundi jatetxearen aurrealdean zeuden. Giroa ere ederra zen, aparteko bero gabe.

Inoiz baino parte-hartze handiagoa izan zuen lasterketak atzo. 149 lasterkarik eman zuten izena Torreauzo eta Olate bitartean dauden 7.600 metroak egiteko. Horien artean gehienak oñatiarrak izan arren, Bilbo, Iurreta, Gasteiz eta Zaragozatik etorritakoak ere bazeuden; eta, nola ez, inguruko herrietako lagunak.

Lasterketa hasi eta berehala hartu zuen aurrea El Guarrah bilbotarrak. Beste urte batzuetan ere, Torreauzon parte hartutakoa da, eta ondo ezagutzen zuen bidea. Hala, erritmo gogorra jarri zuen hasieratik; izan ere, bere helburua 2002an Abdeslam Serrokhenek egindako errekorra hobetzea zen (22:07). Helmugan, baina, ez zuen lortu hasierako helburua; azkenean, 23:09ko denbora egin zuen El Guarrahek." bakarrik joan naiz eta, hala, ezinezkoa da errekorra haustea. Laguntza falta izan zait", adierazi zuen amaieran lasterkariak.

Bigarren tokian, Iurretako Aitor Uribesalgo helmugaratu zen, eta hirugarrenean, Alberto Ibañez gasteiztarra. Lehenengo oñatiarra Sergio Garcia gaztea izan zen. Garciak 25:52ko denbora egin zuen Torreauzoko helmugan. Beste oñatiarrak helmugan, Imanol Molinero eta Asier Osinaga izan ziren, hurrenez hurren.

**EMAKUMEEK, MAILA ONA**

Petitek ezarritako errekorraz gain, emakumezkoen lasterketan maila ona egon zen. Helmugan bigarrena, Zaragozako Raquel Llamas izan zen, eta hirugarrena, Blanca Marin gasteiztarra.

Oñatiarren artean, Marisol Ramos izan zen lehena, eta Edurne Elkoroiribe eta Sandra Maneiro bigarren eta hirugarren sailkatu ziren.

Amaieran, sari banaketa egon zen Torreauzoko plazatxoan. El Guarrahek eta Petitek, bakoitzak, 200 euro eraman zituzten. Petitek, gainera, beste 200 euro ere irabazi zuen, errekorra egiteagatik.

## sailkapenak

| GIZONEZKOAK | |
|---|---|
| 1. Mohammed El Guarrah | 0:23:09 |
| 2. Aitor Uribesalgo | 0:23:38 |
| 3. Alberto Ibañez Ruiz de A. | 0:24:24 |
| 4. Gotzon Solaegi | 0:24:30 |
| 5. Cipri Burcio | 0:24:46 |
| 6. Eduardo Casado | 0:25:02 |
| 7. Sergio Garcia | 0:25:18 |
| 8. Tasio Gomez | 0:25:38 |
| 9. Manu Hurtado | 0:25:40 |
| 10. Imanol Molinero | 0:25:48 |

| EMAKUMEZKOAK | |
|---|---|
| 1. Cristina Petite | 0:26:06 |
| 2. Raquel Llamas | 0:27:16 |
| 3. Blanca Marin | 0:30:26 |
| 4. Elena Calvillo | 0:31:19 |
| 5. Marisol Ramos | 0:31:27 |

**DORLETAKO AMA PROBA** > 29. EDIZIOA

# Azpiru Ugarte taldeko Ugaitz Artolak esprintean irabazi zuen Gatzagan

Bere taldekide Oscar Puyolen aurretik sartu zen Gatzagako helmugan, 2:42:49 denbora eginez

23 urtez azpiko eta elite mailako 95 txirrindularik hasi zuten proba; helmugara, 47 iritsi ziren

**MIREIA BIKUÑA** > LEINTZ GATZAGA

Dorletako Ama lasterketaren 29.aldia jokatu zen atzo Gatzagan. Goizeko 10etan irteera hartu zuten txirrindularien artean, Azpiru Ugarte taldeko Ugaitz Artola izan zen azkarrena.

Lasterketak zituen 115 kilometroak egiteko, 2:42:49 segundu erabili zituen. Denbora berberarekin, haren taldekide Oscar Puyol sailkatu zen bigarren tokian. Azkenik, podiumeko hirugarren tokia Cafes Baque taldeko Ismael Estebanek bete zuen.

Halaber, mendiko saria Ugaitz Artolak irabazi zuen, eta taldekako sailkapeneko saria, Azpitu Ugartek.

**IRTEERA, GATZAGAKO PLAZAN**

Gatzagako plazan kokatuta zegoen helmugatik, 95 txirrindulari abiatu ziren. Edozelan ere, helmugara, 48 bakarrik iritsi ziren. Dorletako Ama proba ekainean egiten denetik, parte-hartzaile kopuruak gora egin du: 2005ean, 28 txirrindulari lehiatu ziren; iaz, 90; eta atzo, 95.

Txirrindulariek Bergara aldera hartu zuten. Lehenengo itzuli hartan, taldetxo batek aurrera egin zuen. Bada, bigarren itzulirako, txirrindulari askok lasterketa utzi egin zuten. Hortaz, proban jarraitzen zutenek bat egiten zuten berriro ere.

Azken metroak Gatzaga erdigunetik egin ziren. Hala, bertan zeuden zaleen animuekin, Ugaitz Artolak Oscar Puyoli aurrea hartu zion azken metroetan.

Antolatzaileak pozik agertu ziren, txirrindulariek eta zaleek emandako erantzunarekin.




**IRABAZLEAK** Gatzagako 29. sariko podiuma. JOSETXO ARANTZABAL






GOIENKARIA

## Oñatiko Triatloi Taldeko lagunak Alemanian izan dira, Ironmanean

Oñati Triatloi Taldeko 11 lagunek hartu dute parte Alemaniako Roth herrian egiten den Ironmanean. Hala, hamaika lagun horietatik bederatzi oñatiarrak dira –Zumarragakoa eta Eskoriatzakoa dira beste biak. Guztiek lortu zuten proba amaitzea.

Proba ekainaren 24an jokatu zen, domekan. Parte-hartzaileek 3,8 kilometro igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42,195 kilometro antxitxika egin behar izan zuten. Oñatiko hiru lagun, Iñaki Pelayo, Jon Zelaia eta Josu Odriozola, hain zuzen, lehenengo ehunen artean sailkatu ziren. Guztira, 2.600 parte-hartzaile egon ziren Alemaniako Roth herriko Ironmanean.

Oñatiko atletek aste bete egin zuten Alemanian; lehenengo egunetan eguraldi aldakorra izan bazuten ere, proba egunean, eguraldia lagun izan zutela aitortu digute.



LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

GAURTIK AURRERA
BEHERAPENAK

ASTELEHEN GOIZEAN ZABALIK



IAZKO FINALA Argazkin, iazko txapelketako finalistak: La Juve, txapelduna, eta Angiola, txapeldunordea, sariak jaso ondoren. GOIENKARIA

**BERGARA** > FINALERDIAK ETA FINALAK

# Ipintzako txapelketa azken txanpan sartu da

Etzi, eguaztena, hasita jokatuko dituzte hainbat mailatako finalaurrekoak eta finalak

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Ipintzako futbol txapelketari azkeneko partiduak falta zazkio: futbol liga azken txanpan sartu da. Hala, txapelketako norgehiagokarik interesgarrienak falta dira: finalaurrekoak eta finalak.

**MUTILAK**

Lehenengo finala beteranoen txapelketakoa izango da. Etzi, eguaztena, lehiatuko dira, 19:30ean hasita, Ugarrixa eta Errota Gain taldeak.

Escalibur eta The Purple taldeak izan dira onenak kopa txapelketan. Hala, bi hauek lehiatuko dira egubakoitzeko finalean, Ipintzan, 19:00etan.

Ipintzako txapelketako final handian, Getokuak eta A Ze Flaxa Galways taldeak neurtuko dira. Agorrosinen jokatuko den finala uztailaren 13an, egubakoitza, izango da, 19:30ean.

**NESKAK**

Nesken txapelketei dagokienean, 11nako futbol txapelketari finalaurrekoak falta zaizkio. Lehen finalaurrekoa Zeribarre eta Potzu ta Zapaburuak taldeek jokatuko dute, uztailaren 9an, arratsaldeko 8etan.

Bigarren finalaurrekoan, Bersora eta Ostrukak lehiatuko dira: uztailaren 10ean, hori ere arratsaldeko 8etan.

Bestalde, emakumeen zortzinako futbol txapelketa Lagunak taldeak irabazi du Boto Bekutz taldearen aurka. Finala penalti jaurtiketetan erabaki zen.



**ETB KANTXA** > FINALA

# Aitor Mendizabal antzuolarrak irabazi du Elgetako lau t'erdiko pilota txapelketa

Norgehiagoka gogor eta estu batean, 21-19 menderatu zuen Unai Onsalo Aresoko pilotaria

Kadete mailako txapela Jon Jaunarenak jantzi zuen, Ansotegiri 22-12 irabazita




**SARIDUNAK** Irudian, bi finaletako protagonistak, sariak jaso ondoren. Atzean, Oxel Erostarbe alkatea, eta Pedro Mari Goikoetxea ETBko ordezkaria, besteak beste. M.B.

**MIREIA BIKUÑA** > ELGETA

Giro bikainean eta Elgetako jaien barruan jokatu ziren atzo Elgetako lau t'erdiko pilota txapelketako finalak. Atzo ezkero, txapeldun berriak ditu aipatu txapelketak: Jon Jaunarena, kadete mailan, eta Aitor Mendizabal antzuolarra, nagusietan.

Hain justu, Antzuolako pilotariak jaso zituen txalo eta animu gehien. Halaber, nagusien mailako finala jokatu zuen Unai Onsalok ere lagun kuadrila ederra eroan zuen Elgetako pilotalekura.

**PAREKATUA ETA GOGORRA**

Atzo eguerdian jokatutako bi finaletatik, bigarrena, nagusien mailan, Mendizabalek eta Onsalok jokatutakoa izan zen parekatuena, eta zaleen artean giro beroagoa jarri zuena.

Senior mailako finaleko lehen sakea Onsalok egin arren, partiduko lehen lau tantoak Mendizabalek egin zituen. Hasierako tantoetan, lan polita egin zuen Antzuolako pilotariak. Horregatik guztiagatik, Mendizabal 8-1 eta 10-4 aurreratu zen. Hala, pilotalekuan bildutako zaleek, partidua "azkarra" izango zela aurreikusten zuten.

Bada, guztiz kontrakoa gertatu zen. Unai Onsalok 6-0ko partziala egin zuen (12-4tik 12-10era), eta partidua parekatu egin zen.

Finaleko lehenengo berdinketa 14 tantotara izan zen. Jarraian, Mendizabalek hiru tantoko errenta zabaldu zuen (17-14). Bada, Aresoko pilotariak lehia berdindu zuen (17-17).

Tantoak ederki bukatuz, Aitor Mendizabalek abantaila izan zuen berriro (20-17). Bada, Onsalok berriro berdindu zuen norgehigoka (20-20).

Une hartan, bi pilotarien zaleak oso urduri jarri ziren. Unai Onsalok beheko txapara botatako pilotari esker, Antzuolako pilotaria berriro aurretik jarri zen, 21-20. Zaleen animuekin egin zuen Mendizabalek azkeneko sakea; bada, Onsaloren erantzuna oso txarra izan zen.

**NORGEHIAGOKA AZKARRA**

Kadete mailako finalean, Jaunarena (Leitza) eta Ansotegi (Etxarri Aranatz) lehiatu ziren.

Finaleko lehen errenta garrantzitsua Ansotegik izan zuen (2-5). Edozelan ere, Jaunarenak lehia berdindu zuen (6-6). Berriro, hiru tantoko aldea zabaldu zuen Ansotegik (7-10); eta berriro berdindu zuen markagailua Jaunarenak (10-10). Berdinketaren ondorengo bi tantoak Ansotegik egin zituen (12-10).

Bada, tanto hartan bukatu zitzaizkion indarrak Etxarri Aranazko pilotariari. Handik aurrerako 12 tantoak, jarraian, Jon Jaunarenak egin zituen.

**SARI BANAKETA**

Bi partiduak bukatu ondoren, sari banaketa ekitaldia hasi zen. Irabazleek txapelak jaso zituzten, Oxel Erostarbe alkatearen eskutik. Halaber, Aitor Mendizabalek eskopeta bat jaso zuen sari modura.

---

**Aitor Mendizabal** > Pilotaria

## "Markagailua 12-10 jarri denean, urduri jarri naiz; tarte hartan, Onsalok ondo jokatu du"

**M.B.** > ELGETA

**Aitor Mendizabal antzuolarra pozik eta nekatuta zegoen Elgetako lau t'erdiko pilota txapelketako finala amaitzean. Oxel Erostarbe Elgetako alkateak txapela jantzi aurretik hitz egin genuen irabazlearekin.**

**Zorionak!**

Eskerrik asko.

**Nola ikusi duzu lau t'erdiko pilota txapelketako finala?**

Ba, egia esan, partidu oso gogorra izan da. Hasi aurretik, banekien sufritu egingo nuela. Edozelan ere, pozik nago lortutako emaitzarekin.

**Partidu hasieran, 8-1 eta 10-4 aurreratu zara. Baina, gero, lehia asko paretu da.**

Unai Onsalo ni baino hiru urte zaharragoa da, jokalari indartsua eta pilotari oso gogor jotzen diona. Markagailuan 12-10 hurreratu denean, ni urduri samar jarri naiz. Baina, zorionez, azken bi tantoak nik egin ditut.

**Hortaz, helburura bete duzula esan daiteke?**

Nire helburua ez zen, inondik ere, txapela irabaztea. Elgetako txapelketa hasi nuenean, lan ona egin nahi nuen, itxura ona eman nahi nuen. Bada, dena alde izan dut, baita finalean ere.

**Finalerdietan, Joseba Ollo, iazko irabazlea, menderatu zenuen, eta finala irabazi duzu. Ezusteko bi garaipen izan dira?**

Bai, zalantza barik. Olloren aurka irabazi nuenean, sorpresa izan zen guztiondako. Halaber, finala irabaztea ere ezustekoa izan da, ezusteko ederra.

**Elgetako txapelketa lortu duten pilotari asko, egun, profesional mailan daude. Nola ikusten duzu zure burua?**

Nik, momentuz, pilotarekin gozatzen jarraitu nahi dut, eta denborak esango dit gaurko garaipenak zenbat balio duen.



**TXAPELDUNA** Aitor Mendizabal, txapela jantzita duela. MIREIA BIKUÑA

**DENONTZAKO KIROL JAIA** > 16. EKITALDIA

# Minusbaliatuen kirol jaia, sentsibilizazioa eta integrazioa lortzeko

Debagoienean egiten den jai honen 16. ekitaldian, 180 lagun inguru elkartu ziren

Edozein kirolean aritzeko ahalmena erakutsi zuten partaideek zapatuan Iturripen



**'BOCCIA'** Gutxituen artean oso ezaguna da *boccia*, eta Iturripen ere jokatu zuten. JOSETXO ARANTZABAL



**SASKIBALOIA** Gutxitu fisikoak, gurpildun jesarlekuetan saskibaloian jokatzen. EDU MENDIBIL

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Beroa izan zen nagusi zapatuan Iturripen jokatutako 16. Denontzako Kirol Jaian. 28 gradu inguruko tenperatura jasan behar izan zuten partaideek. Aurtengoan, gainera, Gipuzkoako Federazioak egindako II. Udako Kanpuseko ezinduak gehitu ziren festara: guztira, 180 lagun inguru elkartu ziren Debagoienean egiten den jai horren 16. ekitaldian. Eguerdian, Arabako Zuzenak eta Bera Bera taldeek saskibaloi partidua jokatu zuten, gurpildun aulkietan.

Buruko elbarritasuna zein minusbaliotasun fisikoak edo psikikoak dituztenak, pertsona gorrak eta itsuak izan ziren zapatuko kirol festan. Antolatzaileak pozik ziren jasotako erantzunarekin, nahiz eta ikusle gutxi azaldu Iturripera. Beroak ez zuen horretan lagundu. Urtetan kirol monitore aritutako Angel Zeziagak azpimarratzen zuen moduan, "beharbada egokiena horrelako jaiak herrian integratzea da, herri barrura eramanda".

Kontuak kontu, ekitaldi ugari izan zituzten egunean zehar Iturripen. Jaiaren helburu nagusietako bat sentsibilizazioarena da. Alicia Figueroa Gipuzkoako Federazioko zuzendari teknikoaren hitzetan, "ikusleak minusbaliatuen azalean jartzea bilatzen dugu, ikus dezaten nolako zailtasunak dituzten eta zer nolako lana eta ahalegina egin behar duten kirola egiteko".

**OZTOPOEI AURRE EGINEZ**

Edozein kirol egiteko ahalmena erakutsi zuten partaideek zapatuan: badminton, slalom, *boccia* eta txirrindularitza probak izan ziren. Minusbaliatuen bizikleta bereziak erabiltzeko aukera izan zuten ikusleek. Izerdi asko bota zuten guztiek. Pilota izan zen nobedadea Iturripen: Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik, Igor Gutierrez bergararra izan da, hain zuzen, ezinduen beharretara pilota jokoa egokitu dutenetako bat.

Gipuzkoako Minusbaliatuen Kirol Federazioak eta Debagoieneko Mankomunitateak antolatu zuten zapatuko jaialdia, Kutxaren eta Athlon kirol enpresaren laguntzarekin. Arratsaldean, festa, sari banaketa eta oparien zozketa egin zituzten.



**Alicia Figueroa**
Gipuzkoako Federazioa

"Gai honen gaineko sentsibilizazioa pizteko, gizarteari honako mezua zabaldu behar diogu: dibertsitatea balore bat dela, eta errespetua, tolerantzia eta elkartasuna bultzatu behar direla."



**Oskar Carrascal**
Debagoieneko Mankomunitatea

"Aspalditik gabiltza kirol jai hau antolatzen. Integraziorako eta gizartearen sentsibilizaziorako positiboak dira horrelako topaketak. Kirolean oztoporik ez dagoela ederki erakutsi dute partaideek".



**Miren Etxeberria**
Txolarteko monitorea

"Hezkuntza Bereziko ikasketak amaitu berri ditut Eskoriatzan, eta orain dela hiru urte hasi nintzen Atzegiko Txolarte aisialdi taldean; minusbaliatuek transmititzen digutena ikaragarria da".



**Aloña Iurrita**
Dordoka taldea

Aspaceren Dordoka taldean dabil Aloña ormaiztegitarra. *Boccia* eta slalom probetan lehiatu zen zapatuan: "Ahizpa izango dut areriorik gogorrena, akaso. *Boccia*-n moldatzen naiz ondoen".



**Mikel Izagirre**
Gipuzkoako Federazioa

"Gaurko kirol jaiaren balorazio oso ona egiten dugu. Dena den, komunikabideen eta, orokorrean, jendearen aldetik, laguntza sumatzen dut faltan, minusbaliatuen kirola ezagutarazteko".



TXAPELKETA Zortzi talde arituko dira lehian. GOIENKARIA

**ARETO-FUTBOLA** > ARETXABALETA

# Areto-futbol txapelketa gaur hasiko dute

Loramendi euskara elkarteak eta Arlutz tabernak antolatutako txapelketa izango da

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA
Gaur, arratsaldeko bostetan, hasiko da Aretxabaletan jokatuko den areto futbol txapelketari. Loramendi euskara elkarteak eta Arlutz tabernak antolatu duten txapelketak hiru aste iraungo du, eta finala uztailaren 20an jokatuko da.

**ZORTZI TALDEK EMAN DUTE IZENA**
Loramendik uztailean antolatzen duen txapelketa honetarako, herriko zortzi taldek eman dute izena, hauek: Spat, Somos 4, Fonta Sport, Drink Team, TPM, Cipris, La Elite eta K23.

Txapelketa Spat eta Somos 4 taldeen arteko lehiarekin hasiko da. Partidu hori 17:00etan jokatuko dute, Aretxabaletako kiroldegian. Partiduak ordu betekoak izango dira; lehenengoaren ondoren, beste hiru lehia jokatuko dira, hauexek: Fonta Sport-Drink Team, TPM-Cipris eta La Elite-K23.

Partiduak astelehen, eguazten eta egubakoitzetan jokatuko dira. Finalerdiak uztailaren 18an izango dira, eta final handia, hilaren 20an, arratsaldeko 7etan.

**PIRAGUISMOA** > ESPAINIAKO KOPA

# Beti-Busti elkartekoak Espainiako Kopan izan dira

Patxi Ugaldek lehenengo egin zuen infantil B kayak mailan

A.E. > BERGARA
Ekainaren 23an, Galizian, Salvaterra de Miño herrian, piraguismoko Espainiako Kopa Txapelketa jokatu zen. Bertan, Bergarako Beti-Busti taldekoak izan ziren. Bergarakoak gustura pozik ziren Galiziako txapelketan lortutako emaitzekin.

Bergarako Beti-Busti elkartea seigarren tokian sailkatu zen. Guztira, Espainiako Txapelketan 21 taldek hartu zuten parte; gainera, Bergarako entrenatzaileak aditzera eman digunez, palista euskaldunek oso emaitza onak egin zituzten Galizian jokatutako proban.

**INFANTILETAN, SARIAK**
Bergarako kirolarien artean, infantil B kayak mailan, Patxi Ugalde lehenengo postuan geratu zen, eta Aritz Gimbert, seigarren postuan. Infantil B mailan jokatutako proban, 15 palistak hartu zuten parte. Gainera, infantil A mailan, Iñaki Usabiaga 14. postuan gelditu zen. Usabiagak parte hartu zuen mailan, guztira, 30 palista lehiatu ziren.

Horregatik guztiagatik, Bergarako Beti-Busti taldekoak pozik geratu dira Espainiako Kopan lortutako emaitzekin; izan ere, Galiziatik urrezko domina ekartzea lortu zuten.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Maiatzaren 21ean jokatu zen, Bergaran, Gipuzkoako Txapelketa; Patxi Ugalde eta Beñat Lizarralde txapeldun izan ziren, eta Unai Agirrezabal txapeldunorde.



GALIZIA Beti-Bustiko kirolaria Espainiako txapelketako proban. BETI-BUSTI

**ESKUBALOIA** > SARI BANAKETA

# Eskubaloi federazioak Josetxo Muniategi entrenatzailea sarituko du

Ibarreko hainbat jokalarik golegile onenaren saria jasoko dute; eta, Ford Mugarrik, kopako txapeldunarena

A.E. > BERGARA
Uztailaren 6an, Donostiako Txuri Urdin izotz jauregiko 2. solairuan, Gipuzkoako eskubaloi federazioak urteko sariak banatuko ditu; tartean, hainbat debagoiendar, besteak beste, Josetxo Muniategi Bergarako entrenatzailea sarituko dute.

Muniategik 22 urte daramatza Bergarako eskubaloi elkartean, urte gehienak, entrenatzaile lanetan. Modu honetan, federazioak eskubaloiaren alde egindako lana eskertu nahi dio Muniategiri.

**TALDE ONENA**
Gainera, Muniategik zuzentzen duen taldeak talde onenaren saria ere jasoko du; hau da, Gipuzkoako 1. Territorialeko txapeldunaren garaikurra. Txapeldunen artean, Arrasateko Ford Mugarrik Gipuzkoako Kopa Txapelketako garaikurra jasoko du, eta Verkol Aloñak, Gipuzkoako kadete mailako txapeldunorde saria.

Bestalde, ibarreko hiru jokalarik golegile onenaren saria jasoko dute: Bergarako Mikel Plazaolak (1. territoriala), Aloñako Ander Ugartek (gazte maila) eta Aloñako Ainhoa Apellanizek (kadete maila). Hortaz, Gipuzkoako eskubaloi federazioko jaian, ibarreko hainbat izango dira.



ENTRENATZAILEA Muniategi, Labegaraietan, Bergarako taldearekin. GOIENKARIA

# Debagoieneko **WEBGUNEAK**




## AHOLKULARITZAK
**ASEGI**
www.asegim.com
**ESTRADOS**
www.consultoriaestrados.com

**AKADEMIAK**
**BASTIDA**
www.bastida.es

### ALTZARIAK ETA APAINKETAK
**BZ SISTEMAS**
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
**MARRUBI**
www.marrubi.com

### ANTZINAKO ALTZARIAK
**ZUMADIA**
www.zumadia.com

### ARETOAK
**360 ARETOA**
www.360aretoa.com

### ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
**MARIA JESUS**
www.mjargazki.com

### AROZTEGIAK
**ARREGI**
www.goiena.net/blogak/arregi
**AZKARATE**
www.goiena.net/blogak/azkarate

### ARRANDEGIAK
**ITSAS EDER**
www.goiena.net/blogak/itxaseder

### ASEGURUAK
**BRIZ ASEGURUAK**
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
**LAGUN ARO**
www.seguroslagunaro.com
**WINTERTHUR**
www.axawinterthur.es

### AUTO – KONTZESIONARIOAK
**4QUATTRO4**
www.4quattro4.com

### BIDAIA AGENTZIAK
**BARCELO**
www.barceloviajes.com

### BITXITEGI TAILERRA
**OSKAR VITORIA**
www.goiena.net/blogak/vitoria

### EGUZKI OIHALAK
**TOLDOS LETE**
**www.toldoslete.com**

### ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
**ARETXARGI**
www.goiena.net/blogak/aretxargi

### ELEKTRIZITATE MATERIALAK
**SETALDE**
www.setalde.com

### ELKARTEAK
**EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL FEDERAZIOA**
www.goiena.net/blogak/ehmff

### ERAIKUNTZAK
**CONSTRULAN**
www.construlansl.com

### ERROTULOAK
**PANDO**
www.goiena.net/blogak/pando
**ROTUDENAK**
www.rotudenak.com

### ESTETIKA ZENTROAK
**ANGELA**
www.angelaestetika.net
**GUZTIZ EDER**
www.goiena.net/blogak/guztizeder
**LILURA**
www.goiena.net/blogak/lilura
**MAIER**
www.goiena.net/blogak/richimaier

### FISIOTERAPIA ZENTROA
**EKIN**
www.goiena.net/blogak/ekin

### GARAJEAK / KONPONKETA
**AUTOS ARETXA**
www.autosaretxa.com
**AUTOS RIBELOGA**
www.autos-ribeloga.com
**GALLASTEGI MOTOR SPORT**
www.goiena.net/blogak/gallastegi
**JC RACING**
www.goiena.net/blogak/jcracing

### GARBIKETAK
**HEMEN**
www.hemen-garbiketak.com
**DENETIK GARBITASUN MEKANIZATUA**
www.goiena.net/blogak/denetik

### GIMNASIOAK
**IRUDI SPORT**
www.goiena.net/blogak/irudisport
**ZAINDUZ**
www.goiena.net/blogak/zainduz

### GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
**ETA INTEGRALA**
**GALGORRI**
www.goiena.net/blogak/galgorri

### HARATEGIA
**LANDALUZE**
www.goiena.net/blogak/galgorri

### HAUR PARKEAK
**OKIPARK S.L**
www.goiena.net/blogak/okipark

### HESTEBETEAK
**URDEKI**
www.goiena.net/blogak/urdeki

### HIZKUNTZA AKADEMIAK
**MONDRAGON LINGUA**
www.mondragonlingua.com
**LA PUERTA AL INGLES**
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

### HOTELAK
**HOTEL MONDRAGON**
www.hotelmondragon.com

### IKASTETXEAK
**ARETXABALETA INSTITUTUA**
www.iaretxabaleta.com
**ARIZMENDI IKASTOLA**
www.arizmendi.ikastola.net
**ELKAR-HEZI IKASTETXEA**
www.elkarhezi.com
**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**
www.mondragon.edu

### ILE-APAINDEGIAK
**RICHI**
www.goiena.net/blogak/richimaier

### INDUSTRIA HORNIDURAK
**SUMINISTROS UGARTE**
www.suministrosugarte.com

### INFORMATIKA
**DCA COMPANY**
www.dcacompany.com

### INGENIARI GEOLOGIKOA
**HARRILUR**
www.harrilur.com

### INMOBILIARIAK
**ANBOTO**
www.inmoarrasate.com
**ARRIETA & SAN MIGUEL**
www.arrietasanmiguel.com
**KOROSTI**
www.inmokorosti.com
**UDALATX**
www.udalatx.com

## ITURGINTZA ETA BEROGINTZA
**URKO MANTENIMIENTO, S.L.**
http://www.goiena.net/blogak/urko

### JANARIAK
**GERTU**
www.goiena.net/blogak/gertu

### JANTZI DENDAK
**MARKIEGI**
www.goiena.net/blogak/markiegi
**UDALAITZ**
www.goiena.net/blogak/udalaitz

### JATETXEAK
**BASTER ALDE**
www.baster-aldejatetxea.com
**DRAGON ORIENTAL**
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
**DUKIENA**
www.goiena.net/blogak/dukiena
**MAULANDA MERENDERUE**
www.goiena.net/blogak/maulanda
**OTZETA**
www.goiena.net/blogak/otzeta
**TABERNA BERRI**
www.goiena.net/blogak/tabernaberri

### KALAMUA
**KLOROFILA**
www.klorofila.com

### KIROL DENDAK
**LAINO. SKATE & SNOW**
www.laino.info

### KONGRESU ETA BILKURAK
**GANDIAGA TOPAGUNEA**
www.gandiagat opagunea.com

### LANDETXEAK
**ARTEAGA**
www.arteagalandetxea.com
**ATERBE**
www.aterbe.com
**UXARTE**
www.uxarte.net

### LANTEGI ETA TAILERRAK
**BATUAK S.A.**
www.batuak.com
**LINEAS LASA**
www.lasa.es
**PERFIPAR**
www.goiena.net/blogak/perfipar
**TALLERES CARPINSA S.L.**
www.carpinsa.com

### LEIHOAK
**ARGI-PLASTIK**
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
**EGO**
www.goiena.net/blogak/ego

### LORADENDAK
**EKILORE**
www.goiena.net/blogak/ekilore
**MAYTE LORADENDA**
www.goiena.net/blogak/mayte

### OINETAKOAK
**KORO ZABALETA**
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

### OKINDEGIAK
**AIASTUI**
www.goiena.net/blogak/aiastui
**OGIZUN**
www.goiena.net/blogak/ogizun

### OPARIAK
**MERKEOPARI**
www.goiena.net/blogak/merkeopari

### OPTIKAK
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
www.goiena.net/blogak/multiopticas

### OSTALARITZA
**GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK**
www.goiena.net/blogak/garaia
**ANTONIO BENITO**
http://www.antoniobenito.net

### PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
**FORMAK**
www.formak.net
**IPAR PROJECT**
www.iparproject.com

### PUBLIZITATE AGENTZIAK
**ADOX**
www.adoxnet.com
**AKORT-PUBLICIDAD**
www.akort-publicidad.com

### SUKALDERAKO ALTZARIAK
**BASTIDA**
www.goiena.net/blogak/bastida

### TABERNAK
**EZKUTU**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**ORLY**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**GUREA**
www.goiena.net/blogak/gurea
**HAMAIKA… TABERNA**
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
**ZIRIPOT**
www.goiena.net/blogak/ziripot

### TATUAJEAK
**GANESHA**
www.goiena.net/blogak/ganesha

### TAXIAK
**GORKA GARAI**
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

### UDAL ZERBITZUAK
**GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA**
www.aizue.com
**ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA**
www.goiena.net/blogak/aebpn

### UMEENDAKO ARROPA
**HAURTXOA**
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

### ZERAMIKAK ETA BAINUAK
**URBIETA**
www.goiena.net/blogak/urbieta
**GELATZU**
www.gelatzu.com

### ZERBITZU DIGITALAK
**ATAI**
www.goiena.net/blogak/atai

### ZUR LANTZAILEAK
**ELEJALDE**
www.goiena.net/blogak/elejalde

**Bisita ezazu:**
**www.goiena.net/merkatua**

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.



**> ARAMAIO**
San Martin jaiak egubakoitzean hasi ziren eta gaur amaituko dira > 27



**> ELGETA**
Ferixa Nagusiko jaiak eguenean hasi ziren eta atzo amaitu > 27



**> ELKARRIZKETA**
Arantzazu Ezkibel 'Harmailatik' saioko aukezleari elkarrizketa > 29



**> JAZZA**
Datorren barikuan hasiko da Espoloiko jazz emanaldi zikloa > 29

**JAIAK** > ESKORIATZA

# Helduen danborrada berriro ere indarra hartzen hasi da

**TXOSNAGUNEA**
Bi txosna jarri dituzte aurten herrian, eta gauero kontzertuak egin dituzte

**PARTAIDETZA**
Herri bazkaria egin zuten atzo, eta 400 lagun inguruk parte hartu zuen

**EDURNE BURGAÑA** > ESKORIATZA
Aurtengo San Pedro jaiak atzo amaitu ziren Eskoriatzan. Eguenean hasi zituzten festak, eta atzo amaitu, jai bukaerako traka eta bandera jaitsierarekin. Aipatzekoa da, aurten, aurreko urtetan baino jende gehiago ibili dela.

**KART PISTA, DOAN**
Eguenean, 18:30ean, hasi ziren San Pedro jaiak, festa kanpaiak eta txupinazoa bota ostean, Herriko plazan. Musika eskolakoek kalejira egin zuten gero, herriko kaleetan barrena. Baina ez zen izan kalejira bakarra: buruhandi eta txistulariek ere egin zuten eurena.

Helduen danborrada ere egin zuten. Gero eta jende gutxiagok parte hartzen zuen, baina aurten, berriro ere partaidetza handitzea lortu dute. Bira handia egin zuten herriko kaleetan zehar, eta plazan amaitu zuten. Herritar pilo bat bildu zen bertan, danbor hotsak entzuteko. Giro polita egon zen.

Egubakoitzean, berrikuntza egon zen barraketan: urterokoen artean, kart pista jarri zuten Olaeta plazan. Doan izan zen, gainera.

**BISATUA LORTU EZ**
Udal Korporazioa San Pedro elizara joan zen; baina hamaika zinegotzietatik, lauk bakarrik, eta udaltzain batek parte hartu zuten. Ez da hori gertatzen den lehenengo aldia izan. Badirudi ohitura galtzen doala.

Gorosarri plazan egin behar ziren ikuskizunen artean, Burundiko Batimbo dantza taldea eta Cidan mi Peru dantza taldea aritu behar ziren egubakoitz eta zapatuan. Baina ezin izan ziren Eskoriatzara etorri, bisatua ez zutelako lortu.

Helduen danborrada eguenean egin bazuten, umeena zapatuan izan zen. Ume asko atera zen, danborra gerrira lotuta, makilak astintzen, eta kale izkinetan guraso eta herritar mordoa egon zen umeei begira.

**HERRI BAZKARIA**
Atzo, 12:30etik aurrera, talogileak eta sagardo kupelak jarri zituzten Herriko plazan. Aurreko urtetan ere egon izan dira, baina aurtengo berrikuntza umeak izan dira. Izan ere, Eskoriatzako txikienek euskal dantzak dantzatu zituzten plazan. Gainera, aurreko urteetan baino jende gehiago ibili zen han.

Herri bazkaria ere egin zuten atzo Gorosarri plazan. 14:30ean hasi zen, eta jende mordo bat joan zen: 400 lagun inguru. Entsalada eta txuletak jan zituzten, eta postrearen atzetik, kanturako tartea etorri zen. Abestien letrak banatu zituzten bazkaritara joandakoen artean, eta han zegoen musika talde batek jotako doinuei letra jartzen aritu ziren guztiak.

Txosnagunean giro ederra eduki dute jaietan. Bi txosna jarri dituzte: ezker abertzalekoek bat, eta Onbidekoek bestea. Gauero kontzertuak egon dira bertan. Txosnagunea Eskoriatzako Barua Bandakoek ireki zuten. Gauean, jaietako kontzertu ikusgarriena eskaini zuten Des+karadas eta Infernuko Panpinak taldeek.

Zapatuan, Malenkonia eta Une oñatiarrak, Eskoriatzako Arianrod eta Ondarroako Keike aritu ziren txosnetan. Atzo, txosnaguneko emanaldiak amaitzeko, DJ Bull aritu zen.

Eskoriatzako San Pedro jaiak amaitzeko, urtero moduan, traka eta bandera jaitsiera egin zuten atzo. Horrela eman zioten amaiera lau egunetako jai giroari eskoriatzarrek.



**TXIKIENAK** Herriko umeek zapatuan egin zuten danborrada. JOSETXO ARANZABAL



**BAZKARIA** Herri bazkarian, 400 lagun inguru bildu zen Gorosarri plazan. JOSETXO ARANZABAL



**KANTUAN** I. San Pedroetako Kantu Txapelketa jokatu zuten atzo plazan. JOSETXO ARANZABAL



# III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak**



**KALA ILUNABARREAN.** Aspaldiko argazkia da. El Frailecilloko kalan (Conil) ateratako argazkia da. Ilunabarrean da eta primeran ikusten da mediterranear itsasoaren edertasuna eguzkipean. /Argazkia: Felix Irizar /Bergara.



**SANTOÑA.** Iazko abuztuan Santoñako portuan dagoen kanoian egindakoa argazkia da. Bertan, Eider, Leire, Ander eta Naroa agertzen dira. /Argazkia: Jon Egaña /Oñati.



**TRENARI BEGIRA.** Asturiasen, iaz, abuztuan. Asturiasko herritxo baten: Nueva. Llanestik gertu. Aitatxo eta Lide trenari begira, Kristoren abiadan pasatu zen. 4 hilabete zeukan umeak. /Argazkia: Saioa Ojanguren /Arrasate.

## Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2007ko irailaren 17a.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, etab.).
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 1eko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

## Sariak:



- **1. saria: Olympus E-400 reflex** argazki kamera digitala, bi objektibo aldagarriekin Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

**Babeslea:**
kutxa

**Laguntzaileak:**
kiñu argazkilariak
Arrasate Bidaiak
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA
GURE AMETSA JATETXEA


GAZTEKUTXA TXARTEL BERRIA.
LEHEN TXARTEL BERTIKALA, ETA
SEGURTASUN-TXIPAZ HORNITUA.
TXIPA ALDATU
gaztekutxa
5412 7599 9999 9999
5313
Noiz Arte Balio
Caduca Final
Valid Thru
MONICA BERGARA ETXEBERRIA
MasterCard
ELECTRONIC USE ONLY
EURO 6000
gaztekutxa
Zure beharrak aldatzen dira, zure bizitza ere aldatuz doa…eta orain, baita zure Gaztekutxa Txartela ere. Formatuz aldatua eta segurtasun-txipaz hornitua datorren txartel berria da, zure eragiketa guztiak segurtasun osoz egin ditzazun.
Baina bada gehiago ere, MasterCard txartela denez, zure erosketak internet bidez egin eta Gaztekutxak eskaintzen dizkizun abantaila guztiez gozatzeko aukera izango duzu: deskontuak saltokietan, zineetan, kontzertuetan…
Oraindik ez daukazula? Zatoz, bada, kutxako zure bulegora eta eska ezazu gaur bertan. Zure poltsikoak eskertuko dizu.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

www.euskoauto.toyota.es

Kalitaterako bidea eskuekin ukitu daitekeen zerbait da.




Toyota Avensis 2007 berria, ukipen-pantaila duen nabigatzailea 21.600 €*-tik aurrera.



Serieko ekipamendua:

• GPS nabigatzailea 32.000 koloretako ukipen-pantailarekin
• Aleaziozko hagunak 17” (16” 1.8 VVT-i)
• VSC (egonkortasun kontrola) + TRC (trakzio kontrola) + BA (balaztatze asistentzia)
• 9 aire-zaku (belauneko aire-zakuak barne)
• Aire-girogailu automatiko duala
• Cruise control (excepto 1.8 VVT-i)
• Irratia + CD irakurgailua, MP3 eta WMA irakurtzeko gauza da + 8 bozgorailu + aginte kontrola bolantean + prozesadore digitala + ASL (soinuaren oreka automatikoa)
• Barruko ispilu elektrokromatikoa
• Atzerako ispilu termoelektrikoak karrozeriaren kolorekoak. Elektronikoki tolesgarriak eta albo bateko keinu-argi integratuak.

**Toyota Avensis 2007 gama:**
D-4D Diesel motoreak: 2.0 126 ZP. , 2.2 150 ZP. eta 177 ZP. VVT-i
gasolina motoreak: 1.8 129 ZP., 2.0 147 ZP. Eta 2.4 163 ZP.

TODAY TOMORROW TOYOTA

Toyota Avensis bat daukazu 20.800 €**-tik aurrera

BERMEA 3 urte edo 100.000 Km.
FINANCIAL SERVICES | TOYOTA

Kontzesionarioa

EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

Toyota Avensis 1.8 VVT-i Sol berria (ukipen-pantaila duen nabigatzailea barne). Publikoarentzako salmenta prezioa gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoentzat. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, kontzesionarioaren promozioa eta ekarpena barne. Prever Plana EZ dago barne. ** Toyota Avensis 1.8 VVT-i Sol berria. Publikoarentzako salmenta prezioa gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoentzat. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, kontzesionarioaren promozioa eta ekarpena barne. Prever plana EZ dago barne. Iragarkiko modeloa: Toyota Avensis Wagon Sol. Kontsumo konbinatua 5,5 eta 9,6 l/km tartean. $CO_2$ igorpena 146 eta 228 g/km artean.

**ARAMAIO >** SAN MARTIN JAIAK

# San Martin jaiak aitzaki, jende mordoa bildu zen Aramaion aste bukaeran

Egubakoitzean hasi eta gaur amaituko dira jaiak; asteburuan, giro ederra egon da, eta kontzertuek, bereziki, gazte asko erakarri dituzte



**MEXIKO** Domeka arratsaldea mexikar talde batek alaitu zuen. JOSETXO ARANZABAL

**EDURNE BURGAÑA** > ARAMAIO
Aramaioarrak jaietan daude egunotan. Egubakoitzean hasi zituzten San Martin jaiak, eta gaur bukatuko dira. Eguraldiak lagundu du giroari eusten, eta ederki askoan ibili dira asteburuan bertan bildutakoak.

**HERRIKO TALDEAK, ELKARLANEAN**
Herriko hainbat talderen partehartzearekin antolatutako jaiak izan dira aurtengoak: Gazte Asanblada, Txirritola euskara elkartea, erretiratuen elkartea, Bertso eskola, Arrantza eta Ehiza taldea, datza taldea, Papargorri abesbatza, Kurtzeta gain tiro taldea eta Trikitixa taldea.

Egubakoitzean, 19:00etan, txupinazoa bota zuten jaiei hasiera emateko, plazan. Umeentzako kale antzerkia egin zuten ostean: *Zirkus bihurri ibiltaria*. Herriko gazteak bertso triki poteoan ibili ziren.

Gaueko kontzertuek jende asko erakarri zuten Aramaiora. Horrela, egubakoitzean, Akats, Aggressive Combat eta Des-Kontrol taldeek jo zuten. Zapatuan, beste rock kontzertu bat egin zuten Soziedad Korrupta, Mazazo eta Garagargogura taldeek.

Zapatuan, eguzkiak gogotsu jotzen zuen, eta plazan egindako bits jaia gustu ederrez hartuko zuten guztiek. Arratsaldean, plater-tiro eta mus eta briska txapelketak egin zituzten.

Atzo, domeka, jende mordo bat bildu zen herrian. Kanpotik joandako senide eta lagun talde handiak zeuden Aramaion. Meza Santua esan zuten 12:00etan, eta ostean, herriko dantzarien emanaldia egon zen plazan. Polita izan zen, eta plaza bete egin zen emanaldia ikusten zeudenekin.

Gaur amaituko dira jaiak. 11:30ean, umeen jolasak egingo dituzte parkean, eta 12:00etan, meza. Arratsalean, koadrilen arteko pikea egingo zuten, 16:00etan hasita. Arrasate Musikalekoek kontzertua emango dute San Martin elizan 19:00etan. 21:30ean, herri afaria egingo dute eta, atzetik, dantza erakustaldia, 22:30ean, plazan. DJ Festa ere egingo dute txosnetan 00:00etatik aurrera, eta 03:00etan, kaltzontzilo-kulero-tanga karrera egingo dute; garbiak eta berriak eramatea komeni. Atzetik, playback txapelketa egingo dute txosnetan.

**ELGETA** > FERIA NAGUSIA

# Feria Nagusiko jaietan, giro ederra eduki dute lau egunetan Elgetan

Eguenean, mozorro jaitsiera egin zuten elgetarrek Salbador kaleko goialdetik; begirada gehien erakarri zutenak sado-masoak izan ziren



**ASTO LASTERKETA** Bi gazteen arteko lehia handia izan zen; azkenean, Beretxinagak irabazi zuen. JOSETXO ARANZABAL

**EDURNE BURGAÑA** > ELGETA
Amaitu dira Ferixa Nagusiko jaiak, eta denetarik utzi dute. Eguenean hasita, lau egun iraun dute jaiek, eta herritarrek betiko parte-hartzea erakutsi dute. Giro ederra egon da Elgetako kaleetan, eta eguraldiak ere lagundu du.

**MOZORROAK**
Kanpai hotsek eta etxafuegoek eman zieten hasira eguenean jaiei. Mozorro jaitsiera egin zuten Salbador kaletik, trikitixa eskolakoen laguntzarekin. Aurten, batzordeak hala erabakita, guraso eta umeak etxeko arropekin edo pijama jantzita mozorrotu ziren. Koadrila bakoitzak bere jantzia asmatu zuen: barre algara gehien sortu zutenak ipurdia bistan eroan zutenak izan ziren.

Herri afaria egin zuten plazan, eta giro ederrean egon ziren. Egubakoitzean, egitarau zabala eduki zuten elgetarrek. 11:00etan, umeentzako puzgarriak zabaldu zituzten kirol kantxan, eta 12:00etan, Meza Nagusia, iazko jaiez geroztik hil diren erretiratuen alde. Bazkaria ere eduki zuten erretiratuek Espaloian.

Zapatua egun eguzkitsua atera zen. 11:00etan, esna deia egin zuten Tolosako dultzaineroek, eta umeentzako jokoak egin zituzten Salbador kalean. Une garrantzitsuenetako bat Asto karrera izan zen,Elgetako VII. saria. Bost lagunek parte hartu zuten, baina lau iritsi ziren helmugara; bosgarrena lurrean barrena geratu zen. Lehenengo bi postuetan gaztetxoak ibili ziren, eta lehia gogorraren ostean, Beretxinagak irabazi zuen. Asto gainean zihoazenek izerdi mordoa bota zuten.

Horren atzetik, paella jana etorri zen: paella erraldoia prestatu zuten.

Atzoko eguna izan zen jaiei izena ematen diena. Feria Nagusia 09:00etan zabaldu zen: ganadu erakusketa, makinaria eta burdindegi azoka, loreak, barazkiak, gaztak, fruta, txakolina, eztia, eskulangintza, landareak, eztia... denetarik ikusi eta erosteko aukera egon zen.

Elgetako trikitilariak goizean kaleak alaitzen ibili ziren. Arratsaldean, 19:30ean, Mexiko Lindo ikuskizuna egon zen.

Ederki pasa dituzte jaiak elgetarrek. Giro polita eduki dute kaleetan lau egun hauetan.

## gazte zerbitzuak

### BEKAK

**> Administrazio Publikoa.** IVAP. Unibertsitateko titulazioa duten pertsonak Administrazio Publikoaren esparruan prestatzeko eta ikerketak bultzatzeko bekak. Epea: uztailaren 23a.

### IKASTAROAK

**> Kooperazioa.** Setem Hego Haizea. Garapenerako Lankidetza Estrategiak 2007 . Urriaren 5etik abenduaren 22ra EHUko Arabako Kanpusean.

**> Kirolak.** Donostiako Kiroletako Udal Patronatua. Kirol ugariren eskaintza uztailean eta abuztuan: tenisa, surfa, piraguismoa, eskalada, patinatzea eta abar. Epea: plazak bete arte.

### EKINTZAK

**> Jazz Kontzertuak.** Bergarako Udala. Uztaileko egubakoitzetan Bergarako Espoloian, 22:30ean izango dira jazz kontzertuak. Uztailak 6, Los inquilinos quintet; Uztailak 13, A.M. Big Band; Uztailak 20, Mr. Dixie Jazz Band; Uztailak 27, Five Hot Project.

### LEHIAKETAK

**> Grafitia.** Topagunea, Euskara Elkarteen Erakundea. Euskal Herriko IV. Graffiti Lehiaketa 2007. Euskal Herriko 16 urtetik gorako euskaldun gazteentzat. Epea: uztailaren 4a.

**> Film Laburrak.** Murtziako Gazteriaren Erakundea. Murcia Joven 2007 Lehiaketa: generoa fikzio argumentala izango da eta gaia askea da. Epea: uztailaren13a.

### LANA

**> Hainbat lanpostu.** Arrasateko Udala. Administraria, informatikaria, informatikari laguntzailea, euskaltegiko irakaslea, iturgina, peoia. Oinarriak: *www.arrasate-mondragon.org* webgunean. Epea zehazteke dago.

**> Hainbat lanpostu.** Gasteizko Udala. Teknikoak, laguntzaileak, ofizialak… Epea: uztailaren 16a.

**> Aparejadorea.** Mendaroko Udala. Aparejadore lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: uztailaren 10a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.**
**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeko. Deitu 607 79 00 37 zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai, Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Etxea salgai San Josepe kalean. 60 m². 2 logela. Sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Trastelekua du. Guztiz berriztatua. 667 53 70 00.

**Arrasate.** Etxea salgai San Josepen. 58 m2, berrituta, bi logela. Trastelekuarekin eta igogailuarekin. 667 53 70 00.

**Arrasate.** Grupo San Juanen etxebizitza salgai. 60 metro koadro. Azkeneko solairua, igogailuarekin. Ganbara eta sotoa ditu. Berogailua. 606 25 92 80.

**Arrasate.** Logela bakarreko apartamentua salgai Arimazubin. Terraza eta ganbararekin (estudioa jartzeko aukera). Prezio eta egoera onean. 687 83 97 37.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. Bizi izatera sartzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko gertu. 90 metro koadro. Prezio interesgarria. 685 72 40 30.

**Bergara.** Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. 619 41 39 72.

**Bergara.** Simon Arrietan, 57 metro karratukoa, bi logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua, igogailuarekin. 649 63 11 47.

**Bergara.** Zabalotegin etxebizitza salgai. Berrituta eta jantzita. 615 79 41 02.

**Castello.** Estreinatzeko. Hondartzatik oso gertu. (Oropesa-Alcoceber bitartean). 2 logela, komuna, sukalde-jangela, terrazarekin, igerilekuarekin, lorategiarekin eta garajearekin. Golf zelaiaren ondoan. 187.000 euro. 648 60 30 24.

**Jaca.** Estreinatzeke. Llano Victoria, urbanizazio pribatua, igerilekua, zabala, bi logela, sukaldea jantzita, bi terraza, garajea eta trastelekua. Kalitate handikoa. Gasa. Oroelera begira. Eguzkitsua. Aukera ona. 678 72 89 18.

**Oñati.** 120 m²-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

**Oñati.** Apartamentua salgai San Lorentzo auzoan. Saloi-sukaldea eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

**Oñatin** etxebizitza salgai, Kale Zaharrean. 3 logela, 2 egongela, 2 komun, sukaldea eta balkoi handia. Etxebizitza oso argitsua da. 635 75 70 35.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Cangas de Morrazo (Rias Baixas).** Bi logelako apartamentua errentan ematen da. Herriaren erdian dago. Garajea dauka. Bista ederrak Vigora. 609 36 60 47.

**Deba.** Etxea errentan ematen da uztailean, herri erdian. 615 72 15 03.

**Jaca.** Bi logela. Urbanizazio baten dago; bi igerileku eta bi tenis pista dauzka urbanizazioak. Garajea dauka. 665 73 95 65.

**Peñiscola.** Bi logelako apartamentua, hondartzatik gertu, uztailean errentan emateko. Eta bi logelako beste apartamentu bat ere ematen da errentan; hura ere hondartzatik gertu eta lorategi eta igerileku komunitarioarekin. 616 95 04 00.

**Villanua.** Pirinioetan apartamentua errentan ematen da. Igerilekuarekin, garajearekin eta paddle pistarekin. Uztaila eta abuztuko lehenengo hamabostaldia. 656 74 80 47.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Senar-emazte batzuek etxebizitza hartuko lukete errentan. 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

**Arrasate-Eskoriatza.** Hiru gelako etxebizitza bat hartu nahi da alokairuan urriaren hasieratik urtarrilaren bukaera arte. Ikasleak. Seriotasuna ziurtatuta. 656 77 66 32.

**Arrasate.** Hiru gelako etxe bat hartzen da errentan urriaren hasieratik urtarrilaren bukaera arte. Ikasleak. Seriotasuna ziurtatuta. Txema. 656 77 66 32.

**Arrasate.** Unibertsitateko 4. eta 5. mailetako lau ikaslek etxebizitza hartu gura dugu errentan 2007/2008 kurtsorako. 647 16 80 96 edo 645 72 87 04.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 629 75 40 22.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 670597362.

**Arrasate**. Logela bila urritik urtarrilera. Seriotasuna ziurtatua. 656 77 66 32.

**ARRASATE**
Biltegi batean mutil euskalduna behar da. FP2 eta gidatzeko baimena beharrezkoa. Bidali CV-a 80 Posta-kutxa-ra, 20.500 Arrasate. Erref: Biltegia

**BERGARA**
Ile apaintzailea behar da ile apaindegi baten. 943 76 49 51

**BERGARA**
Jatetxe baterako zerbitzaria behar da. 943 76 41 06

**ARRASATE**
Gozotegiak zerbitzari esperientziaduna behar du. Euskaraz jakitea ezinbestekoa. 645 99 67 06

**DEBAGOIENA**
Enpresa batek MUNTATZAILE ELEKTRIKOA behar du. Berehala lanean hasteko. Bidali curriculuma 169 posta-kutxara (Bergara)

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garajea salgai Eguzki Dorren. 665 71 49 40 edo 943 79 43 39.

**Bergara.** Burdiñaten garajea salgai. 605 74 75 64.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Kontzezino kalean garaje plaza errentan. Deitu 655 71 81 84 zenbakira.

**Eskoriatza.** Garaje itxia errentan ematen dut. Gaztañadui kalean. 605 71 05 32.

**Oñati.** Santa Marina kalean. Deitu 615 71 53 29 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** 140 m² ditu, bi solairutan. Herriaren erdialdean dago eta sukalde eta industria aparailuz hornituta dago. Elkarte baterako aproposa da. 645 00 71 46.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** 45 urtetik gorako emakumea behar da umeak zaintzeko. 656 74 97 11.

**Oñati.** Etxea garbitzeko eta umeak zaintzeko emakumea behar da. 626 55 77 99.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskaldun batek edozein lan egingo luke. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Nagusiak zainduko nituzke. Egun osoz edo egun erdiz. 676 59 53 17.

**Arrasate.** Orduka lan egingo nuke. 636 91 92 83.

**Bergara.** Emakume bat gertu lanerako. 677 05 99 99.

**Bergara.** Neska gaztea gertu umeak zaintzeko, arratsaldez. 650 23 34 98.

**Debagoiena.** Gizonezkoa gertu edozein lanetarako. Arratsaldeetan, aste bukaeretan edo jaiegunetan. 696 38 10 07.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Bergara.** EGA titulua duen unibertsitateko ikaslea Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei eskolak emateko gertu, euskaraz zein gazteleraz. 652 74 57 10.

**Debagoiena.** Ingeles eskolak ematen ditut: etsaminetarako, eskolarako lagungarri, ingeles komunikatzailea... Deitu 15:00etatik 21:00etara 610 97 49 68 zenbakira.

**Oñati.** Esperientzia handiko irakasleak eskola partikularrak ematen ditu LHko eta DBHko ikasleentzat; udan eta urte osoan. Deitu 943 78 28 43 telefono zenbakira.

**Uztailean** eskola partikularrak emango ditut, batxilergo mailara arte, ingelesa barne. Deitu 652 73 12 56 zenbakira.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana** perfilatua salgai. 130 ZP, 23.000 km, 2006ko otsailean erosita, estra ugari. Berme ofiziala dauka. Aukera ezin hobea. 636 42 74 65.

**Enduro motorra.** KTM 250 EXC 2006 mendiko motorra salgai. 665 74 05 48 edo 665 74 05 48.

**Ford Fiesta** salgai. Egoera onean. 1.200 euro. (Esther). 616 27 27 00.

**Golf IV 1.6.** 105 ZP. Gasolinazkoa. 6 urte eta 101.000 km. Beltza, 3 ate. Aire girotua, ESP, hagunak (llantak). 9.500 euro. 943 79 62 86 edo 609 93 04 70.

**Opel Astra** 2.0 16 v Sportive salgai. 136 ZP. 1998koa , 120.000 km. Egoera onean. Irrati CDa eta MP3a. 4.000 euro. Deitu 696 56 04 87 zenbakira. Aitor.

**Opel Kadett.** Z matrikula. 61.000 km. Egoera oso onean. 800 euro. 685 76 89 57.

**Passat TDI.** 130 ZP. Egoera oso onean. 58.000 km. Gris iluna. 17.000 euro. Deitu 667 31 37 45 zenbakira.

**Renault Safrane** 2,5. 168 ZP. Gasolinazkoa. 9 urte eta 138.000 km. 18:00etatik aurrera deitu 678 73 65 05 telefonora.

**W-Sharan** autoa salgai. 1996koa da. Egoera onean dago. Deitu 618 02 02 58 zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ehiza-txakurrak.** Bi hilabeteko txakurkumeak saltzen ditut. 943 71 48 90.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Arrantza.** Boiles amuzkia saltzen dut karpak arrantzatzeko. Deitu 688 62 84 25 zenbakira.

**Bergara.** Bizikleta estatikoa salgai. BH etxekoa. Kilometro gutxi. 70 euro (negoziagarriak). Deitu 627 75 81 94 telefonora.

**Kamera digitala** salgai. Sony DSC-V1. Egoera onean. Deitu 685 76 44 77 zenbakira.

**Gitarra.** Mosrite gitarraren kopia, Dillionek egindakoa. Edizio mugatua, kolore zuria. Estatu Batuetan erosi berria. 400 euro, negoziagarriak. Deitu 607 21 19 69 telefonora.

**Hozkailu konbi** bat eta garbigailua salgai. Urtebetez erabili ditugu. Deitu 670 20 76 01 telefono zenbakira.

**Kanpinerako txalet-denda** salgai. Jangela eta bina lagunentzako bi logela ditu. PVCzko sabaia du eta Altus markakoa da. 120 euro. Sukalde-denda opari. 943 79 57 64.

**Karabana.** Knaus markako karabana salgai. 2005ekoa. Hiru girotan banatua eta gehigarri guztiekin. 620 39 69 47.

**Quinny Zapp.** Umeendako kotxea. Egoera oso onean. 100 euro. 667 31 37 45.

**Zodiac** txalupa motorduna salgai. 3,80 m luzeran eta 1,72 zabaleran. 25 zaldiko gasolina motorra. 665 70 36 49.

### 802. EROSI

**Txanponak** eta bankuko billete zaharrak erosten ditut. Deitu 688 61 85 02 zenbakira.

### 806. GALDU

**Umearen lepo-oihala** galdu dut Bergaran, Agorrosin eta plaza bitartean. Zuria da. Deitu 639 35 47 57 zenbakira. Jaione.

### 807. AURKITU

**Bergara.** Katea aurkitu dut Matxiategin. Medaila bat dauka izenarekin eta jaiotze datarekin. Deitu 943 76 08 53 telefono zenbakira.

**Bergara.** Patinetea aurkitu dut Espoloian. Udaltzaingoan dago. 943 77 91 06.

**Bergara.** Umeen betaurrekoak aurkitu nituen Matxiategiko aparkalekuan, graduatutakoak. Deitu 685 70 85 57 telefonora.

**Bergara.** Zilar koloreko pendrivea aurkitu dut. Udaltzaingoan dago. Deitu 943 77 91 06 telefono zenbakira.

**Zilarrezko eraztun** bat aurkitu dugu Bergaran, Tximeleta ondoan. Izena du eraztunak. Deitu 685 71 51 93 zenbakira.

**Uztailak 2a: 136. zozketa**

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen txokoa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, uztailak 2, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Sariduna**

**HDD Audio Player bat.**
Jose Mari Mujika Sorozabal (Bergara)



Saria jasotzeko epea: 15 egun

**137. zozketako saria**

**XABIER ARREGIren**
***HERRIA, HIRIA, NAZIOA***
**(Pamiela argitaletxea), hiru liburu.**
**(Saridun bakoitzari bat emango zaio)**

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
35 euro
2007 bukaera arte.

Asteleheneko Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 2



**> Gertuko informazioa egunero GOITBn**
**16:45 eta 21:45**

Ibarrean gertatutako berriak jarraitzeko aukera duzue egunero, Larraitz Zeberio (irudian) eta Goiatz Arana kazetarien eskutik.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Teknopolis.
**14:15** Ikusten.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ilunpean.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Bizitegia.
**16:15** Erreportajea.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ur eta lur.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Erreportajea .
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** 5 x 5.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Berriak.
**22:15** Ikusmira.
**22:45** Berriak.
**23:15** Didjeridu.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Hasiberriak.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 3



**> 'Berbaire'-n, gizarte eta politika gaiak**
**21:15**

Ohikoa den moduan, hainbat aditu elkartuko dira mahaiaren bueltan, pil-pilean diren gizarte eta politika gaiei gainbegiratua emateko.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Harmaillatik.
**14:15** 5 x 5.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Telesaia.
**16:15** Ikusmira
**16:45** Albisteak.
**17:15** Boboboak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:15** Bizitegia.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Harmaillatik.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** Erreportajea
**21:15** Berbaire.
**21:45** Berriak.
**22:15** Harmaillatik.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 4



**> Elgeta, Aramaio eta Eskoriatza, jaietan**
**20:47**

Aste bukaeran, Elgeta, Aramaio eta Eskoriatzako jaietan gertatutakoa ikusteko aukera, irudi dibertigarriekin eta protagonisten iritziekin.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Berbaire.
**14:15** Erreportajea.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ur eta lur
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Didjeridu.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Harmaillatik.
**18:15** Eltze beroa.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Teknopolis.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** Elgeta, Aramaio eta Eskoriatzako jaiak 07.
**21:45** Berriak.
**22:15** Berbaire.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ur eta lur.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Hasiberriak.
**00:15** Emisio amaiera

### Eguena, 5



**> Euskal musika taldeei jarraipena 'Musikantoi'-n**
**20:47**

*Musikantoi* saioan azken bideoklipak eta euskal musika taldeen gaineko albisteak jarraitu ahal izango dituzue, Ixone Serranorekin.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Elgeta, Aramaio eta Eskoriatzako jaiak 07.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Telesaia.
**16:15** Ikusmira
**16:45** Albisteak.
**17:15** Boboboak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Eltze beroa .
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Bizitegia.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**20:45** Gaurkoak.
**20:47** Didjeridu.
**21:15** Berbaire.
**21:45** Berriak.
**22:15** Musikantoi.
**22:45** Berriak.
**23:15** 5 x 5.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Ilunpean.
**00:15** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 6



**> 'Ilunpean', Oihana Elortzarekin**
**22:15**

Makina bat jendego igaro da dagoeneko Oihana Elortzak aurkezturiko *Ilunpean* saiotik. Gertutasunez eta sakontasunez egindako elkarrizketak.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Berbaire.
**14:15** Musikantoi.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ikusten.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Didjeridu.
**16:15** Eltze beroa
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Elgeta, Aramaio eta Eskoriatzako jaiak 07.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Erreportajea .
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Hitz bitan.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> 'Uda giroan' saioa, eguerdira arte**

Txatxilipurdiren udalekuak, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren argazki lehiaketa eta kirol albisteak jorratuko dituzte. Era berean, 10:45ean, Musakolako igerilekua, Garaioko urtegia eta Donostiako Aquariumarekin konexioak.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Agenda
Bainutokiekin konexioak: Garaioko urtegia, Musakolako igerilekua, Donostiako Aquariuma
Zozketak
Zorion agurrak
**12:05** Izarren ordua: abesti ezagunak
**14:00** Uda Giroan (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

**Zapatua**

**10:00** Asteko gainbegiratua.
Aste osoan barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena

**Domeka**

**10:00** Asteko gainbegiratua

## gertutik



**Arantzazu Ezkibel**
Kazetaria

# "Ez dut argi Realaren zuzendaritzaren planteamendua"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Irudi ikasketak Andoainen eta Ikus-entzunezkoenak Bilbon eginak ditu Arantzazu Ezkibel oñatiarrak. Joan den maiatzetik, GOITBko *Harmailatik* saioko aurkezlea dugu. Gaur, Torreauzoko krosaren eta Elgetako lau t'erdiko pilota finalaren gaineko irudiak eta iritziak ekarriko dizkigu.**

**Nondik datorkizu kirolzaletasuna?**
Betidanik. Txikitan, eskubaloian jokatzen nuen, eta, kadete mailan, futbolera pasa nintzen. Korrika egitea ere gustatzen zait. Noizean behin, mendira joatea gustuko dut baita.

**Eta kirola jarraitzeko orduan, prentsa, irratia ala telebista?**
Irratia entzuten dut, baina musika, gehienbat. Eta prentsa irakurri baino, telebista gehiago ikusten dut.

**Zapatuan gertatutakoaren ondoren, Realari zer nolako etorkizuna ikusten diozu?**
Ez dut oso garbi ikusten zuzendaritzaren planteamendua. Gaur egun, iragana ordezkatzen duten Toshack bezalako jendea bueltatzea… ez dakit ba… Aukera gehiago eman beharko liekete klubean ari den jende gazteari eta 2. maila ondo ezagutzen dutenei.

**Tourra hasiko da zapatuan. Faboritorik bai?**
Nire faboritoa Ullrich izan da beti, baina dagoeneko erretiratuta dago… Ikusteko dago zeinek irabaziko duen. Bestalde, pena da txirrindularitza hain kakaztuta egotea, dopina dela eta ez dela. Beste kirol batzuetan ere gertatuko dira horrelakoak, baina...

**Kirolariek topikoz beteriko adierazpenak egiten dituztela esan ohi da…**
Hala izaten da askotan, bai. Denetariko jendea dago, baina, kasu gehienetan, gazteak izaten dira, lotsatiagoak beharbada, eta, zenbaitetan, zaila egiten da adierazpenak lortzea.

**Nesken kirolari benetako bultzada falta zaiola uste duzu?**
Oraindik ere, gizartean, aldaketa handiak egon behar dira hori lortzeko. Diru aldetik ere, babesle indartsuen laguntza falta da.

## asteko hitzorduak

### Ikus-entzunezkoa



ESKORIATZA
**> Llum Quiñoneroren 'Mujeres del 36' ikus-entzunezkoa Ibarraundin**

Espainiako Gerraren erakusketarekin batera, Llum Quiñonero kazetariak (argazkian) 1998an ekoiztutako *Mujeres del 36* dokumentala ikusteko aukera izango da bihar, martitzena, eta hilaren 10ean, Ibarraundin, 18:00etan.

### Zinema



ARRASATE
**> 'Udako zinema' programazioaren hasiera, 'Spiderman 3' filmarekin**

*Udako zinema* programazioa jarriko dute abian Arrasaten, egubakoitzean. Uztaileko eta abuztuko egubakoitzetan, doaneko emanaldiak izango dira Monterronen, 22:30ean. Hasteko, *Spiderman 3*, Sam Reimiren filma.

### Musika



BERGARA
**> Los Inquilinos Quintet taldearen emanaldia entzuteko aukera**

Aurtengo jazz egitarauari hasiera emanez, Los Inquilinos Quintet taldeak emanaldia egingo du egubakoitzean, Espoloian, 22:30ean. Uztailaren 13an, Arrasate Musikal Big Band taldearen (argazkian) txanda izango da.

**kuxkuxeroa**



Arantzazu Ezkibel

# Pilota, dantza eta eskopetak!

Pilota gora eta behera, ni neu ere pilotan hasteko moduan nago. Ez naiz arrasatearrak eta Antzuolako **Mendizabal** bestekoa, baina egun hauetan *eskupelota* gogorrak egin ditut. Zapatuan, autoa izorratu zitzaidan, eta, etxeko zaharra hartu behar izan dut; hark, baina, *direccion resistida* dauka! Hori indarra egin behar dena... eta zarata! Horrek beste gai baterako ematen du.

Autoak ez, motorrak izan dira protagonista aste bukaeran Oñatin. **Honda Gold-Wing** motor topaketa egin zuten zapatuan. 12 motor elkartu ziren; gauean, buelta bat eman zuten herritik, jendearen begiradapean.

**"III. Oñatiko Gaztetxe Egunean, jai giroan, dantzari urdina ere dantzan ibili zen"**

Jai giroan, kalean, Oñatiko gazteak ibili dira. III. Gaztetxe Eguna ospatu dute eta, gainera, giro bikaina jarri; iluntzean, kalejira egin zuten tabernaz taberna... Oñatiko **dantzari urdina** ere, dantzan jarri zuten!

Pilotan, atzo, ETBn eman zuten Elgetako lau t'erdiko txapelketako finalak. **Koldo Aldalur** ETBko esataria ere konturatu zen, aurten, alkate aldaketa egon dela. Horrenbeste urte eta gero sariak banatu dituen **Basauri**ren ordez, **Erostarbe** izan zen atzo. Ea, datorren urteari begira, sariak aldatzen dituzten. Izan ere, irabazleari eskopeta ematea...

**hildakoak**

- **Cesareo de la Fuente Rodriguez.** Oñatin, ekainaren 27an. 66 urte.
- **Malen Errasti Lopez de Foronda.** Arrasaten, ekainaren 28an. 50 urte.
- **Consuelo Garcia Oñate.** Arrasaten, ekainaren 28an. 72 urte.

**asteburuko albuma**



**Eskoriatzako motorzaleak.** Burgoseko Frias herrian, bazkaria egin zuten Eskoriatzako motorzaleek. San Juan eguna, ekainaren 24a, aukeratu zuten bazkari hori egiteko. Argazkian, Eskoriatzako motorzaleak eta euren lagunak ageri dira Friasen.



**III. Oñatiko Gaztetxe Eguna.** Oñatiko Gazte Batzarrak III. Gaztetxe Eguna antolatu zuen zapaturako. Herri bazkaria eta kontzertuak egin zituzten, besteak beste. Kontzertuak plazako frontoian egin zituzten. Sei talde gonbidatu zituzten, eta argazkian ageri da horietako bat.



**Mondrako parrillada.** 170 kilo saiheski eta litroka ardo saldu zituzten Mondrako kideek zapatuan Arrasateko plazan. Ardo eta Gazta Egunean egin behar zuten parrillada hori, baina eguraldi txarragatik ez zuten egin orduan. 19:00etatik 21:00etara, jende asko joan zen plazara pintxoa jatera.



**Honda Gold-Wing motorrak Oñatin.** Torreauzoko krosa aprobetxatuz, Madril eta Kataluniako dozena bat motorzale etorri dira asteburuan Oñati ezagutzera. Torreauzoko krosa ondo ezagutzen dute horietako batzuek, eta lagunak gonbidatu zituzten Oñatira etortzeko. Etxe-Aundin atera zuten argazkia.



**Bergarako bandaren dantzaldia.** Antzina egiten zituzten moduko dantzaldia girotu zuen Bergarako udal musika bandak egubakoitz gauean Espoloian: orain 50 urte inguru, bandak jotzen zituen pieza dantzagarriak jo zituzten. Kontzertu berezi hori bandaren 175. urteurrenaren barruan sartu dute.



**Arrasateko Errozioa.** 17. Errozioaren Erromeria ospatu zuten Arrasaten, domekan, Debagoieneko eta inguruko andaluziarrek. Izan ere, aurten 20 elkartek egin dute bat, tartean, Santurtzi, Eibar edo Donostiako elkarteek. Arruena parkean ospatu zuten errozioa.

## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle**.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
*astelehena@goiena.com*

## zorion agurrak



OÑATI
**Nagore Lopez Perez**
Ekainaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak, Nago! Zure mutila eta bere familixa danan partetik.



BERGARA
**Ane Miren Zabala Ibarra**
Ekainaren 27an, 26 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiakoen partetik, bereziki Xabierrek.



BERGARA
**Maddi Mateas Areitio**
Ekainaren 29an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Jurgi Etxebeste**
Ekainaren 30ean, 2 urte. Etxekoen partetik, mila-mila zorion!



ARETXABALETA
**Amaiur Bergaretxe**
Uztailaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak eta mila muxu etxekoen partetik, bereziki Zaraitzuren izenean.



ARETXABALETA
**Maren Garai Santamaria**
Uztailaren 1ean, urtebete. Zorionak eta muxu handi-handi bat, etxeko guztien partetik, baina bereziki Ainara eta Uxuen partetik.



ARRASATE
**Urko Taracido**
Zorionak, Urko! Uztailaren 1ean, 2 urtetxo. Zorionak zure gurasoen partetik, eta batez ere Maiaren partetik. Muxu handi bat!



OÑATI
**Jon Zubizarreta**
Uztailaren 1ean, urtebetetzea, zorionak, txapeldun!! Laztan handi bat eta ondo pasau, etxekoen partetik.



BERGARA
**Maialen Leturia Eraña**
Uztailaren 2an, 14 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.



DEBAGOIENA
**Uxue Agirre**
Uztaila 4an, 9 urte. Zorionak, gurasoen, Aneren eta Xabierren partetik. Zorionak eta muxu haundi bat Irene eta Iñigoren partetik.



ESKORIATZA
**Jose Cabeza**
Uztailaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak eta egun polita izan dezazula! Emaztea, semealabak eta Alex, Mikel eta Bogdan bilobak.



ESKORIATZA
**Nagore Garnateo**
Uztailaren 7an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, batez ere Alexen partetik.



BERGARA
**Haritz Gomez de Balujera**
Uztailaren 8an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



DEBAGOIENA
**Jon**
Zorionak, Jon! Zorionak kontserbatorioan sartzeagatik. Aupa, mutil, segi horrela! Eskerrik asko! Etxekoak eta irakaslea.



OÑATI
**Mireia Bikuña**
Uztailaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak Goienako lankideen partetik, *morenaza*!



ANTZUOLA
**Usoa Agirre**
Uztailaren 8an, urtebetetzea. Zorionak Goienako lankideen partetik!

**ZORIONAK!**
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

## jaiotakoak



**Udane Agiriano Castelo**
Arrasate > 3,520 kilo. Ekainaren 26an. Gurasoak: Laure (Arrasate) eta Alberto (Arrasate). Argazkian, Udane jaioberria, amaren besoetan.



**Ane Olabarria Iturbe**
Arrasate > 3,200 kilo. Ekainaren 26an. Gurasoak: Amaia (Arrasate) eta Jose Luis (Elgeta). Argazkian, Ane txikia amarekin agertzen da.



**Uxue Kerejeta Quintas**
Eskoriatza > 3,500 kilo. Ekainaren 26an. Gurasoak: Ana (Eskoriatza) eta Asier (Arrasate). Argazkian, haurtxoa, amaren besoetan.



**June Lizarralde Ruiz de Zarate**
Arrasate > 3,040 kilo. Ekainaren 27an. Gurasoak: Ane (Arrasate) eta Mikel (Arrasate). Argazkian, umea kuman.







ASTELEHENEKO
Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-07-02

**Maria Jose Gil** > Korrikalaria

# "Zapatilak eramaten ditut oporretara ere"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

**40 urte baino gehiagorekin hasi zen Maria Jose Gil korrika egiten eta, harrez gero, ez da gelditu. Makina bat domina irabazi ditu. Orain astebete, bi irabazi zituen, Murtzian egindako Espainiako Txapelketan. Atzo, Oñatiko Torreauzoko krosean hartu zuen parte.**

**1.500 eta 5.000 metroko lasterketan txapelduna izan zinen Murtzian, eta 800 metrotan deskalifikatu egin zintuzten. Pasa zaizu haserrea?**

Lehen aldiz egin nuen lasterketa hori Espainia mailan. Gogorra izan zen deskalifikatu egin nindutela entzutea, eta berriro ez errepikatzea espero dut. Korrika egiten jarraituko dut.

**Noiz hasi zinen korrika egiten?**

41 urterekin, eta lehiaketetan parte hartzen, 1992an.

**Baduzu prestatzailerik?**

Ez. Markuletera joaten naiz eta han egiten ditut, adibidez, 500 metroko serieak. Nik, gainera, ez diot erlojuari begiratzen helmuga pasa arte. Saiatzen naiz entrenamenduetan lortutako denbora ez jaisten, baina lasterketa ondo bukatzeak gehiago arduratzen nau denbora gutxi egiteak baino.

**Zer diote etxekoek?**

Ni bezalakoak dira, ez diote horrenbesteko garrantzirik ematen, baina beti animatzen naute.

**Zenbat kilometro egin zenituen joan den astean, adibidez?**

Martitzenean, 11 kilometro egin nituen, eta eguenean, Zubillagaraino joan nintzen. Normalean, goizean egiten dut korrika. Badut lagun bat 08:00etan hasten dena lanean, eta askotan, 06:15ean joaten gara biok korrika egitera.

**Oporretan ere korrika egiten duzu?**

Malagara joaten gara normalean udako oporretan; aurten ere, hara goaz. Nik zapatilak beti eramaten ditut, eta ikusten badut inguruan lasterketa bat antolatu dutela, parte hartzen dut.

**Aurtengo udan, Munduko Txapelketarako entrenatu beharko duzu.**

Bai. Italian da, irailaren 4tik 16ra. Inguruak ezagutzeko ere aprobetxatuko dut bidaia.

**Zenbat zapatila pare erabiltzen dituzu urtean?**

Bi: pare bat apurtzen dudanean, berriak hartzen ditut.

**Non dituzu gordeta irabazitako domina guztiak?**

Garajean daude asko, bi zapata kaxatan gordeta. Munduko Txapelketan irabazitakoa agerian dut, ikusteko moduan. Oparitu ere egin ditut sari batzuk.

### TEST-A

**Herria:** Malagan jaio nintzen, baina Arrasaten bizi naiz azken 44 urteotan. **Adina:** 66 urte. **Ikasketak:** Lehen mailako ikasketak. **Zaletasunak:** Korrika egitea, paseatzea eta gakorratza egitea . **Gustuko lasterketa bat:** Bilbon martxoan egin nuena, baina denetan disfrutatzen dut. **Arrasateko tokirik politena:** Monterron eta Seber Altube plaza. **Hotza ala beroa nahiago korrika egiteko?:** Hotza; beroarekin, gaizki pasatzen dut.



**GIL** Munduko Txapelketan hartuko du parte Maria Jose Gilek irailean. GOIENKARIA

## www.goiena.net

**Oporretara joateko-eta, erosiko zenuke bigarren etxebizitza bat kostaldean?**




## biharamuna

Marijo Deogracias

### Bat, bi, hiru, lau... Gora San Ferminak!

**Rafaela Romero** ez euskaraduna izateak hautsak harrotu ditu, baina egina dago eta beste ez euskaradun bat jarri dute erakunde baten ordezkari. Eta oraingoz, **Iñaki Galdos**en esku omen dago Gipuzkoako Diputazioaren eraketa; Oñatiko semea bera. Behinola, EAJren prentsa arduradun bati entzun nion, Oñatiko tratantea zela, tira… Ikusiko dugu zerk ematen duen; baliteke San Ferminen aurretik argitzea baita ere Nafarroako gobernua.

Nik, baina asteburuon Elgetako jaietara barik, Metallica ikustera joatea erabaki dut. Itzelezko kontzertua egin zuten **James Hetfield**en mutilek, eta Euskadi Gazteak debaldeko 1000 sarrera bikoitz banatu ez arren, gaueko bederatziak aldera Kobetamendiko sarreran batu zen jendetza sarrerari begiratu ere egin barik sarrarazi zuten; koadrilako batzuk orduan sartu zirelako dakit hori. **Roberto Moso** eta **Illaski Serrano** handik zirela aprobetxatuz, komentatzea erabaki nuen. Modan ei dago kontzertu-lekuak betetzea; *Kill'em all* esateko gogoa sartzen bazaizu ere, baina espektakuluaren mundua da! Jarrai dezala bada showak, eta izan dadila probetxuzkoa.



## eguraldia



| MINIMOA | MAXIMOA |
|---|---|
| +15 | +25 |

Mendebaldeko haizea ibiliko da. Zerua hodeitsu geratuko da, eta berriro ere euri txikia egin dezake. Tenperatura, aldaketa barik.

www.euskalmet.euskadi.net

Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan auto honentzako: Focus Coupé Trend 1.6 100 ZP. Prever Plana, BEZa garraioa, sustapeneko deskontua eta kontzesionarioaren elkarpena barne. Eskaintza hau baliagarria da langile eta flotentzat. FCE Bank Plc-k eskainitako finantzaketa; Espainiako sukurtsala. Ford España SLk diruz lagundutako interesak. Eskaintza baliagarria uztailaren 31 arte. REBE zenbakia: 07/24244. Modeloa : Focus S. Kontsumoa: 4,7 - 9,3 l/Km. CO2 emisioak: 125 - 224 g/Km.




Ford Focus 13.300€
Aire girogailua, ABS, CD irratia eta Barruko ordenagailua.
eta gainera 0% ko UTB
24 hilabeteko finantzaketa.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
Feel the difference
Ford